

# Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Sanmioletan  
Iñistorra  
elkarteak Edu  
Muruamendiaraz  
"Urnietar Prestu"  
izendatuko du

2014ko irailaren 5a, 408 zenbakia IX. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

OMENALDIA

## Musika emanaldi berezia elizan, Sorabillako jaien hasieran



Myriam Ulanga eta Uxue Ricon Ulanga.

Musika Sorabillako elizan, ostiral honetan.

**S**orabillan jaiak ospatuko dituzte asteburu osoan zehar, datorren astelehenera arte. Lehen egunean, Iturza-

etaren omenezko pala partiden eta zikiro janaren artean, maila handiko musikari gazteek kontzertua eskainiko dute auzoko elizan.

Beste batzurekin batera saioa eskainiko dute Uxue Ricon, Imanol Iribarren edota



Uxue Sanchez, Imanol Iribarren eta Itxaso Sanchez.

Uxue eta Itxaso Sanchez ahizpek. Iluntzeko 20:00etan hasiko da emanaldia.

Musikari tarte zabala eskainiko diote aurtengo jaietan. Bereziki, Sorabillako jai batzordeak aurtun omenduko duen pertsona musikaria dela-

ko: Jexux Mari Otamendi musikaria eta musika eragilea. Igande eguerdian jasoko du sorabillatarren omenaldia. Aiurri egindako adierazpenetan, esker ona adierazi die Sorabillako jai batzordeko kideei. [GEHIGARRI BEREZIA, 2. ORRIALDEA]



## Herri bira irailaren 14an

Urnietako Herri Biraren edizio berria laster izango da, 9,5 kilometroetan zehar herri-gunea zeharkatzen duena. Dagoeneko izena eman daiteke herrikrossa.com gunean. Aurretik 8 eurokoa da izen ematea. Egun berean, 12.

Lehen sailkatuentzat sariak izango dira eta partaideen artean zozketa ugari egingo dituzte.

## Koadrilen arteko futbola Urnietan

Ostegun honetan amaituko da Urnietako koadrilen arteko futbol txapelketan izena emateko epea. Finala Urnietako jaietan jokatu da.

[KIROLAK, 4. ORRIALDEA]

## Mendi bizikleta proba Leitzaranen

Leitz kirol taldeak Leitzaran eta inguruan ezagutarazteko mendi bizikleta proba antolatu du irailaren 21erako.

**B**ost egun lehenago, irailaren 16an, probaren aurkezpena egitearekin batera, Andoaingo puntako txirrindulariekin batera mahai-ingurua antolatu dute Basteron. Arratsaldeko 19:30ean hasita, hizlari arituko dira Abraham Olano txapeldun handia, Josu Arregi men-

di bizikletan Elite mailako txirrindularia, Mikel Alonso eta Jokin Alberdi Andoaingo txirrindulari eskolako kideak, Ana Isabel Mujika ONCE elkarteak kidea eta beste hainbat gehiago.

Irailaren 21eko bizikleta proba bertako txokoak ezagutzeko aukera ezinhobea izango da. Leitzek bi ibilbide antolatu ditu. Nagusia 42 kilometroko luzerakoa eta 1300 metroko desnibela duena. Proba ertaina 25 kilometrokoa eta 700 metroko desnibelekoa izango da.

[KIROL ALBISTEAK, 7. ORRIALDEA]



Proba irailaren 21ean izango da. Irailaren 16an, berriz, mahai-ingurua Basteron.



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

# IZURTZU

## ERRETEGIA

- Eguneko menua
- Karta
- Asteazkenetan itxita
- Erreserbak egitea komeni da
- Berezitasuna: Asteburutan babarrunak eta baserriko oilaskoa
- Etxeko postreak

Andazarrate Gaina • Tel. 943 69 45 16 • 666 44 85 21 • ASTEASU



## Gaztetxea gogoan, egun osoko jaia Urnietan

Gaztetxearen aldeko eguna antolatu zute uztailaren hasieran, maniFESTazioa eta guzti. Parte hartze handia izan zen.

Uda igarota, aste honetan bilera berria deitu dute.



## Aurrera Gure Ametsa

Abuztuaren erdialdean Aurrera Gure Ametsa dantza taldeko kideek Biasteriko dantza taldearekin elkarlanean, Huescako La Rondalla de San Vicente de Espluseko dantza taldearekin emanaldia eskaini zuten Esplus herrian. Urriko lehen asteburuan hiru taldeek emanaldia errepikatuko dute Urnietako jaian.

## Lanak hasi dira

Abuztuan Salesiar ikastetxera doan bidean bidegorria eraikitzen hasiko direla iragarri zuen Udalak. Errepidearen bazterreko espaloia lau metrora zabalduko dute. Albo batean bidegorria eraikiko dute eta bestean oinezko pasabidea. Bestalde, abuztuan ere, herrian zehar banatuta dauden hamalau zebrabide berritzeari ekin diote.

### UDALAREN ETA ALDUNDIAREN ARTEKO EGUN OSOKO BILKURA INSTITUZIONALA

# Garitano Ahaldun Nagusia urnietarren artean

Uda hasieran egindako bisitaldia garrantzia handikoa izan zen Urnietaren interesentzat. Izan ere, Urnietaren berri zehatza jakiteaz gain, Aldundiko Agintariak

etorkizun hurbilean eragingo duten bi erabakiren berri eman baitzuten. Batetik, Denda Berriko biribilgunea eta, bestetik bus zerbitzua handitzea.

**M**artin Garitanok eta Mikel Pagolak agerraldi irekia egin zuten Lekaion, egunean zehar Udaltxean, Saroben, Kiroldegian edota Denda Berrin bisitaldiak egin eta gero. Arratsaldeko 19:00ean deituta zegoen batzar irekira **Martin Garitano** Gipuzkoako Ahaldun Nagusia eta **Mikel Pagola** alkatearekin batera **Joseba Altube** Errepi-deetako eta Azpiegituretako Foru Zuzendaria, **Arantxa Ruiz de Larrinaga** Herriarren Partaidetzako Foru Zuzendaria, **Agurne Barruso** Kabinete burua, **Txelo Perez** Gizarte Politiketako arduraduna eta **Marina Bidasoro** Giza Eskubideak eta oroimen historikoko zuzendaria ere bertaratu ziren. Herriarrak entzutera eta informazioa jasotzera joan ziren, eta ahal zuten neurrian, erantzunak ematen saiatu ziren.

30 lagun inguru bertaratu ziren kultur etxera eta batzarrarekin hasi baino lehen, bideo bat eskaini zuten Foru Aldundiaren eskumenak zein diren argitzeko asmoz. Ondoren, herriarrek hartu zuten hitza eta askotariko gaiak hizpide izan zituzten: etxekaleratzeak, autobus zerbitzua, errepedeen egoera, bidegorriak, kirol instalakuntzak, lehen sektorearen egoera, ekonomia, aberatsen zerga...

Batzar horretan bi erabaki garrantzitsuren berri eman zieten herriarrei. Batetik, herri hasierako errotondako konponketa eta, bestetik, Donostiara doan autobus zerbitzua 2015eko urtarriletik aurrera Bakearen Usoa plazaraino joango denaren iragarpena.

Bi agintariak, ahaldun nagusia eta alkatea, pozik agertu ziren egun osoko lanarekin eta arratsaldeko bileraren balorazio ona egin zuten, espero baino jende gehiago agertu zelako. Garitanok aitortu zuen uztailaren 17ko egun eguzkitsua batean ez dela erraza horrenbeste jende biltzea: "Parte hartzeko kultura hori sortu egin behar da, eta ez da egun batetik bestera sortzen. Alde horretatik pozik eta baikor gaude".



Udal gobernuko eta oposizioko kideak Martin Garitano eta bere lantaldearekin izan ziren egun osoan zehar.

## Ordezkarri politikoak pozik bisitaldiarekin

Urnietako udaleko hiru alderdiak -EAJ-PNV, EH Bildu eta PSE-EE- pozarren agertu ziren Martin Garitanok Urnietara egindako egun osoko bisitaldiarekin:

**Mikel Pagola, Urnietako alkatea:** "Ahaldun Nagusiari egindako bisitaldia eskertzen diogu eta baita hona hainbat zuzendariarekin etorri izana ere. Izan ere, garraio eta errepediarekin lotuta premiazko gaiak aztertu

eta erabaki nahi ditugu: Sale-siarretako bidegorria eta Denda Berriko biribilgunea berri nahi ditugu. Baina seinalitika eta Saroberekin hitzarmena sinatzeko aukera ere bai".

**Xabier Yurramendi, EH Bildu:** "Oso positibioa da Ahaldun Nagusiak herria eta herriarrek ezagutzea. Herriarrek harreman zuzena izan du eta bertako egoera ezagutzeko oso baliagarria da".

**Herme Gonzalez, PSE-EE:** "Positiboki baloratzen dugu hona egindako bisitaldia zeren eta herriko beharrak helarazteko aukera eman digu, besteak beste, mugikortasuna, garraioa, kirola edo gizarte zerbitzuetan. Oso pozik gaude Denda Berriko biribilgunearen egitasmoa aurkeztu dutelako, eta baita Amarraino doan G3 bus linea laster zabalduko delako. Gure alderdiaren aspaldiko bi eskaera ziren horiek".



Arratsaldean Lekaion herritarren aurreko agerraldia egin zuten. Udako egun eguzkitsua izan arren hainbat herritar bertaratu zen.

## SANMIELAK 2014

# Edu Muruamendiaraz Urnietar Prestu 2014

Sanmieletan ospatzen den Iñistor jaietan aurtengo protagonista nagusia Edu Muruamendiaraz dantzaria eta koreografoa izango da. Hala ere erabaki dute Iñistor elkarteeko kideek, eta horren berri emateko

prentsa oharra igorri dute hedabideetara. Omenaldia Iñistor egunaren bazkalostean jasoko du. Iaz omendu zuten Iñaki Aranzadi apaizaren lekukoa hartuko du *Urnietar Prestu* diren zerrendatxoan.

**A**buztuaren 6an egindako batzarrean hartu zuen erabakia Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarak. Aurtengo Urnietar prestua Edu Muruamendiaraz Gallastegi izango da (Bergara, 1964), dantzari eta koreografoa aski ezaguna Urnietan eta Euskal Herri osoan. Izan ere, dantza tradizionalan eta garaikidean egin duen ibilbide luzean zehar oso estua izan da Muruamendiaraz harremana Urnietarekin, bertako Sarobe zentroaren bitartez, eta azken hamasei urteetan Egape dantza taldea zuzendu du, talde horri ibilbide benetan harrigarri bezain erakusgarria emanaz, euskal dantza tradizionalan berrikuntza aipagarriak eraginez.

Horiek izan dira, hain zuzen ere, Urnietar Prestu 2014 saria erabaki duen epaimahaiak aintzakotzat izan dituen merezimenduak:

- Batetik, Urnietan ohitura eta usadiozko euskal dantzak erakusten eta horiei arnas berria ematen egin duen lan nabarmen eta aipagarria, euskal dantza belaunaldi berriei erakargarri eginez.
- Bestetik, usadiozko euskal dantza sorta zabal bat ikuspegi berritzailez eraldatzen eta berritzen asmatu du, maiz dantza garaikidearen ezaugarriak, baina baita ere bere berea duen estilo batez, Egape dantza taldea euskal dantza berritzailearen eredu eta adibide bihurtuz Urnietan bertan eta, baita herritik kanpo ere, Euskal Herri osoan.
- Azkenik, dantza-ikuskizun moderno eta plastikotasun estetiko handikoak, oso ederrak, sortu ditu aipatu dantza taldearekin, Urnietan ekoitzi diren beste ikuskizun batzuetarako, oso bereziki aipa liteke, duela urtebete taularatu zen 1936 antzerkia.

## IBILBIDE LUZE ETA OPAROA

Aukeran Dantza konpainiaren sortzaile, koreografo eta zuzendari, dantzaria ere konpainiaren sorreran (1997); Bere oinarri-



Urnietar Prestu 2014 saria jasoko du Edu Muruamendiaraz dantzari eta koreografoa.

ko formakuntza dantza tradizionala izanik, bere ibilbide profesionala dantza-hizkuntza garaikidea eta tradizionalaren arteko esperimentazio eta berrikuntzara bideratuta egon da; ondorioz, koreografi berritzaileak sortu eta osatu ditu berak zuzendutako lanetan: "Sutargi" ikuskizunarekin aurkeztu zen konpainia. Euskadin, Gaztela-Mantxan, Katalunian, Murtzian eta Frantzia barrera bira egin zuten, eta bai publikoak bai kritikak harrera oso ona egin zien. 2003ko udan Donostiako Kursoalean bigarren sorkuntza estreinatu zuten, "Izena duen guztia omen da", lan honekin dan-

tza konpainia egonkor gisa finkatu zen, eta Manilaraino bidaiatu ziren Cultur Center of the Philippines-en antzezteko beren lana; 2006ko uztailean Donostiako Antzerki feriarekin barnean "Bideak" azken lana aurkeztu zuten, Azpeitiko antzerki topaketetan Ikuslegoaren Saria lortuz.

2007 urtean, konpainiaren 10. urteurrena ospatzeko aurreko hiru lan garrantzitsuetan oinarritutako ikuskizuna eraman zuten Euskal Herriko hainbat antzokitara.

"GERNIKA, mihise gaineko dantza" (2009) Donostiako Victoria Eugenia Antzokian

*Urnietar prestu 2014 saria irailaren 29an jasoko du, Sanmiel jaietan ospatuko den Iñistor egunaren bazkalostean*

(Dferia) mustu zuten eta 2011 urtean, Euskal Herriko Gazte Orkestrarekin lakidetzan, Neguko Kontzertuen barruan eszenaratu zuten, Erkidegoko hiru hiriburuetan; Argentina eta Uruguain barrera egindako bira ere arrakasta itzela izan zuten ikuskizun honi esker. 2011 urtean "Burnia", Arriaga Antzokiaren eta Aukeran Dantza Konpainiaren arteko ekoizpena estreinatu zen.

2014an, Donostiako Dferian konpainiaren azken ikuskizuna, "Geltokia", mustu zuten.

1994-1996 urteetan Gipuzkoar "Aurrekuko" eta "Dantza Solteko" Euskadiko txapeldun izan zen; Zinemaldiko dantzari ofiziala hainbat urtetan; Kepa Junkera, Oreka TX musikariekin edota Euskadiko Gazte Orkestrarekin elkarlanean aritua da; Carlos Saura, zinegile ospetsuaren "Iberia" filmean parte hartu du; Bilbao Ballet elkarteak antolatutako "Euskaldunak eta dantza" ekitaldietan ere izen handiko dantzari profesionalen partekatu du eszenatokia, Lucia Lacarrarekin eta Igor Yebraekin, besteak beste.

Aholkulari artistiko eta koreo-

grafo lanetan aritu da azken urtean, Pier Paul Berzaizek zuzendutako "Haien ametsa gurea da" (Amaiur) antzezlanetan eta "El caserio" zarzuelan (2011, 2013), Ainhoa Artetarekin, Arriaga Antzokia eta Oviedoko Campoamor antzokien arteko koprodukzioan, besteak beste.

Hezitzaile gisa, hainbat dantza eskoletan irakasle izana da eta gaur egun ere aritzen da Euskal Herriko hainbat herritan; baita atzerriko dantza eskoletan ere, Pariseko Eskualdeko Kontserbatorioan (2011), irakasle eta ikasleei zuzendua, besteak beste; Gaur egun eta honi lotuta, dantzarekin sentiberatzeko hainbat proiektu bultzatzen eta zuzentzen du Urnietako Saroberekin lankidetzan.

Eginahal zabal horretan txertatu behar da, Urnietako dantzari gazte eta helduekin azken urte hauetan guztietan egin duen lan bikaina.

## ERABAKIA AHO BATEZ

Aho batez hartu du epaimahaiak erabakia. Izan ere, Muruamendiaraz urte askotan herrian egindako lan bikain eta ahalegin estuak bihurtu du, bai urnietar eta baita prestu ere izatea.

Urnietar prestu 2014 saria irailaren 29an jasoko du Muruamendiarazek, jaietan ospatuko den Iñistor egunaren bazkalostean, Jakutegi plazako jai gunean, arratsaldeko bostetan.

## DONOSTIARREK URNIETA ETA INGURUKO HERRIAK GOGOAN IZAN ZITUZTEN



Donostiako alkatearen eskutik alkateek oroigarri bana jasoz.

Berrehun eta bat urteren ondoren, Donostian 1813ko erreketako gogoan izaten da. Napoleonen garaiko guduetan, portugaldar eta britainiar soldaduek Donostia sustan utzi zuten. Geroztik, Donostian urtero gogoan izaten da gertaera hura. Aurten, Donostia inguruko udalariak omendu zituzten, tartean Urnieta, 1813an eskaini zuten babesagatik.



Kañoyetan elkartearen antolatzailea.



## Koadrilen arteko futbola

Ostegun honetan amaituko da Urnietako koadrilen arteko futbol txapelketan izena emateko epea, Xauxar eta Amaiur tabernetan egin daitekeena. Irailaren 5ean Gazte Informazio Puntuan bilera deitu dute 19:00etan hasita. Buruz burukoen zozketa egingo dute. Finala jaietan jokatu da, irailaren 26an. Izen-ematea 20 eurokoa da.

## Kale salmenta postuak jaietan

Udalak jakinarazi duenez, herritarrek Sanmieletan kale-salmenta postuak jartzeko aukera izango dute. Interesatuta dagoen edonork BERTAN herritarren arreta bulegora jo behar du edo 010 (Urnietatik) edo 943 00 80 00 telefono zenbakietara deitu. Elikagaiak saltzen dituzten postuak ez dituzte onartuko.

## Pintura lehiaketa irailaren 21ean

Udalak aditzera eman ditu XVII. edizioaren oinarriak. Deialdia irekia da eta edonork har dezake parte. Doakoa da. Parte hartzaile bakoitzak gutxienez koadro bat aurkeztu behar du eta gehienez hiru. Gaia librea izango da. Nolanahi ere, ezinbesteko baldintza izango da Urnietako herrian girotua izatea. Oinarriak aiurri.com gunean irakurgai daude.

### GAZTEEN AISIALDIA URNIETAN

# Abentura ugari udan Gaztelekuaren eskutik

Azken urteetan egin bezala, Urnietako Gaztelekuan uztaile osoan jarduera ugari antolatu dituzte: jarduerak Gazte Lokalean, Udabentura, Gipuzkoa argazkie-

tan,... Jarduera horietako argazki asko ikusgai daude Aiurrik internet sarean duen guneetan. Horren guztiaren lagina beheko argazkietan.



Gaztelekuan tailerrak egin dituzte, ikasturte osoan zehar egin bezala.



Atsedean hartu eta askaria egiteko aukerarik ere ez da falta izan.



Uda giroko jolas dibertigarria asmatu zuten kiroldegitik gertu.



Piraguan ibiltzeko egun zoragarria izan zuten.




Urnietatik gertuko hainbat tokitan izan dira.



Gipuzkoa argazkietan ekimenaren bitartez kostaldeko herriak ezagutu zituzten.

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA  
**Aiurri**



Falcons de Vilafranca, Udabentura, Gipuzkoa argazkietan,...



# Uda luzatzeko aukera Zizurkilen eta Sorabillan

2014, iraila



## MIZPIRADI

SAGARDOTEGIA - ANDOAIN



Leizotz auzoa z/g. 20140 - ANDOAIN - 943 593 954 - 679 382 546  
 mizpiradisagardotegia@gmail.com - www.mizpiradisagardotegia.com

## M E N U B E R E Z I A K

**Eguneko menua:**  
**11€**

**Oilasko menua:**  
**10€**  
 Hirugiharra. Oilaskoa erreta + entsalada + patatak. Izoikia eta txotx.

**Txerri menua:**  
**12€**  
 Hirugiharra. Txerri saiheskia + entsalada + patatak. Izoikia eta txotx.

**Txekor menua:**  
**15€**

Bakailao entsalada epela. Txekor saiheskia + patatak. Izoikia eta txotx.

**Baserriko menua:**  
**17€**

Entsalada tomatea edo letxuga. Baserriko oilasko erdia + patatak. Mami eta txotx.

**Txitxarro menua:**  
**18€**

Entsalada mistoa. Txitxarro erreta. Mami edo izozkia eta txotx.

**Sagardotegiko menu txikia:**  
**20€**

Bakailao tortilla. Txuleta + letxuga. Teilak eta zigarratxoak eta txotx.

**Sagardotegikoa:**  
**25€**

Bakailao tortilla. Bakailao frijitua piperrekin. Txuleta. Gazta, menbrilloa, intxaurrek eta txotx.

**Arkume menua:**  
**30€**

Onddo nahaskia. Arkumea letxugarekin. Postrea eta txotx. (Enkarguz, lagun artean eta laneko bazkariak egiteko aproposa)

# Andoaingo musikaren akuiluari esker ona

**JEXUX MARI OTAMENDI TXISTULARI, ABESLARI ETA KULTUR ERAGILE EZAGUNAREN LANA ESKERTUKO DA AURTENGO SORABILLAKO JAIETAN.**

**A**uzotarrek adierazi dutenez, “jendartekoa, eskuzabala eta ekintzailea da, trebea elkarlanean sortzen”, eta horri esker, “Andoaingo musika eta bertako musikariak protagonista izan dituzten herri ekimen aberatsen sortzaile eta dinamizatzaile gisa azaldu zaigu azken urtetan”.

## Nola hartu duzu omenaldiaren berri?

**Jexux Mari Otamendi:** Eskertzen diet Sorabillako auzotarrei nirekin gogoratu izana. Egia esanda, kosta egin zait ekitaldiarena onartzea, egun hori nirekin personalizatzea alegia. Modurik duinenean erantzuten saiatuko naiz.

Hori argituta, egunotan sentitzen ari naizen ezinegona adierazi nahi nuke. Alberto Agirre abesbatzaren eta Olagain txistulari bandaren sorrerei eta historiari erreparatuz gero, badira nire aurretik aitortza merezi duten pertsonak. **Pio eta Joxe Mari Huizi, Joxe Goikoe-txea**, eta batik bat, gure artean den **Jose Luis Etxeberria**. Txistuaren kasuan, iraganeko aizpuruatar zein urrutiatarren eta egungo Olagain txistu bandaren arteko zubilanak egin zituzten. Euren esker dirau bizirik txistuak Andoainen.

## Auzotarrek Andoaingo musikarekin eta musikarekin herri eragile izatea nabarmendu nahi izan dute batik bat...

**J.M.O.:** Abesbatza eta txistulari bandan hartzen ditudan ardurengatik, eta azken urteetan musikari ezberdinez osatutako ikuskizunen antolatetan parte hartzeagatik izango dela pentsatzen dut...

Egia esan, Andoaingo musikariok nork bere bidea egiteko joera eduki dugu aspaldiko urtetan. Txistulari bandak eta abesbatzak, esate baterako, urtean zehar nork bere kontzertuak eskaintzen zituen eta ez ziren dinamika horretatik ateratzen. Zorionez, ohitura hori aldatzen ari da. Elkarlanean ispiritua nagusitzen ari da, eta entzuleen gozagarri gertatu diren ikuskizun kolektiboak sortu dira. Basteron egin diren Santa Krutz jaietako kontzertuak edo emakumeen emanaldiak izan daitezke adibide ezagunenak akaso.

Azken boladan, ikusi da Andoaingo musikariei gauza txukunak proposatuz gero, berehala ematen dizutela baiezkotza. Musu-truk eman ere, afari batekin konformatzen dira! Desiatzen daude gauzak elkarlanean egiteko, herriko entzuleei kultur eskaintza zabaltzeko. Zein da kontua? Andoainen musika mailan badagoen borondate eta aberastanun hori guztia biltzeko eta koordinatzeko, akuiluak behar izaten direla! Pertsonak falta izaten dira zeregin horretarako; dedikazio handia eskatzen baitu, eta ez baita oso esker onekoa. Nire aldetik, hondar alea jartzen saiatu naiz...



Andoaingo musika eta bertako musikariak protagonista izan dituzten herri ekimen aberatsen sortzaile eta dinamizatzaile delako omenduko dute Otamendi, asteburu honetan Sorabillako jaietan.

## Noiz arteko gogoa eta umorea geratzen zaizu lanean jarduteko?

**J.M.O.:** Adinean aurrera, gero eta gertuago ikusten dut nire iraungitze data; izaeraz ere, egoskorragoa naiz egunetik egunera! Hala ere, oraindik geratzen zait gauzak antolatzen segitzeko kuerda, edo ahal dudana neurrian laguntzeko. Orainxe bertan, azaroan burutu daitekeen egitasmo ikusgarriaren batek kentzen dizkit indarrak. Andoainen ez gara oso esker oneko agertu izan gure aurreko musikariekin, eta hortik doa egitasmoa; gehigo ezin da iragarri oraingoz.

## Nola ikusten duzu Alberto Agirre abesbatza?

**J.M.O.:** Urte oparoak bizi izan ditu abesbatzak 1982an jaio zenetik, baina gainbehera doa azken aldian. Ez daukagu orain 30 urteko sasoirik.

Andoainek, **Katrin Iturralde** eta bere taldearengan jarri beharko du itxaropena etorkizunean. Lan polita egiten ari baita, musika eskola jaso ez duten abeslariak ari delako batez ere.

San Juanetan, esate baterako, **Salbean** elkarrekin abesteko ohitura hartu dugu bi abesbatzok, eta oso ondo moldatu izan gara.

## Eta txistuaren oraina eta etorkizuna?

**J.M.O.:** Osasun ona dauka, eta ziurtatuta dago aurrera begira. Iraganetik gatozen txistulariak eskola zaharreko eskemak

dauzkagu, baina **Joxe Mari Setienen** gidaritzapean, bide berritzailea eta herriari begira modernoagoa eta erakargarriagoa hartu du Olagain taldeak. Gehiago ateratzen gara kalera, eta natural egiten ari zaigu herriko beste musika eragileekin elkarlanean jardutea. Gainera, ez da ahaztu behar **Fernando Gonzalez** irakasle duen txistulari gaztetxoaren eskola ere sortu dela eta bere bidea egiten ari dela.

Pozarekin batera, penarik ere sentitzen dut. Herri mailan, txistua baloratuago egon beharko lukeela iruditzen zait. Donostiako txistulari bandak Udalarekin daukan harremana eta bere jardun publikoa ereduagarritzat hartuko nituzke. Txistuaren transmisioari dagokionez ere, kosta egiten zait ulertzea Udal musika eskolan nola ez den irakasten. Kritika hori beste zenbait instrumentu autoktonoengana luzatuko nuke (albo-ka, txalaparta, soinu txikia...). Ikuspegi orokorragotik ere badaukat beste penarik: iruditzen zait galdu egin dela, iraganen, txistuak kaleko dantzarekin zeukan harreman estu eta alai.

## Ikastolako ikasle ohiekin txistularien taldea sortu duzue...

**J.M.O.:** Bai. Soilik Aita Larramendi ikastolaren 50. urteurrenko ekitaldian parte hartzeko zen ekimena, baina jarraipena eduki du! Hilean behin hamabost bat txistulari biltzen gara, pintxo potearekin batera, herri giroa alaitzen laguntzeko.

## SORABILLA JAIETAN

### EGITARAU 2014

#### Irailak 5, ostirala

- 18:00** Txupinazoa, suziariak eta kanpai erre-pika.
- 18:30** Iturzaeta Memorialeko palako bi finalak.  
Neskak: Ugalde-Gonzalez/Loiarte-Amondarain.  
Mutilak: Eskudero anaiak/Arruti-Alvarez.
- 20:00** Musika kontzertua Andoaingo gazte-  
en eskutik, San Martin elizan.
- 21:00** Zikero jatea. Zozketa afalkideen arte-  
an.  
Ondoren, dantzaldia Los Rubi talde-  
arekin.
- 02:00** Txokolate beroa.
- 03:00** Jai amaiera.

#### Irailak 6, larunbata

- 10:00** VII. Belkoaingo igoera. Lasterketa  
herrikoia. Hamaiketako eta zozketa  
izango da.
- 11:00** Haur lasterketa eta jokoak: lokotxak,  
zakuak, pitxerrak...
- 16:30** Haur jolasak: puzgarriak eta jokoak  
egurrez egindako birziklatutako mate-  
rialekin.
- 18:00** Tomax eta Muxugorri pailazoak.
- 19:30** Dantzaldia La Jodedera taldearekin.
- 20:00** Sardina jatea.
- 20:30** Ate irekiak Erretore etxean, Caritasen  
harrera etxean.
- 21:00** Dantzaldia La Jodedera taldearekin.
- 03:00** Jai amaiera.

#### Irailak 7, igandea

- 10:30** Diana: Eskopeteroen konpainia eta  
Aupa Sorabilla txaranga.
- 12:15** Omenaldi herrikoia Jexux Mari Ota-  
mendi herriko musikari eta kultur  
eragileari.
- 12:30** Hamaiketako herrikoia.
- 17:30** Bertsoak: Aitor Mendiluze, Ion Esku-  
dero eta Millan Telleria. Gai jartzaila:  
Ion Beloki.
- 18:30** Sagardo dastaketa, Herri Kantu kale-  
jirak alaiturik.

#### Irailak 8, astelehena

- KORUKO AMA BIRJINAREN EGUNA**
- 11:30** Meza nagusia abesbatzarekin.
- 12:15** Hamaiketako auzotarrentzat.

Historian atzera eginda, **Iñaki Arin, Joxe Antonio Zalakain, Jose Luis Etxeberria** eta lauok ikastolan jardun genuen 60ko hamarkadan, eta askori erakutsi genien txistua jotzen. Urtean aurrerago, ordea, txirulak hartu zuen indarra txistuaren kaltetan. Ikusten denez urte haiek orotzapan onak utzi zituzten ikasle askorengan, eta horrela animatu genion elkarri, berriro ere kalera ateratzeko.



# Buruntzan bertan eta magalean, giro ederrean

**AURTEN SAN MARTIN ELIZA ZENAREN AZTARNATEGIAN SAN ROKE EGUNEKO MEZA ETA DANTZA SAIOA ANTOLATU DITUZTE. ANTOLATZAILEEN BERRIKUNTZA GOGO ONEZ HARTU DUTE AUZOTARREK, PARTE HARTZEA NABARMEN HANDITU BAITA.**



Urki dantza taldeko kideek soka-dantza ikusgarria eskaini zuten meza nagusiaren ondoren.

**S**an Roke jaietarako kokapen berria topatu dute antolatzaileek. Baita asmatu ere. Auzotarren erantzuna ikusita, datorren urtean ere Buruntzako mendi magalean egingo dute ospakizuna. San Martin aztarnategia Andoaingo txoko ezezagun horien artean ederrenetakoa da. Bisitaldiak merezi du, bertatik bertara dago eta Andoaingo herrigu-

nearen ikuspegi ezberdina eskaintzen du.

San Roke jaiak oilasko biltzaileekin hasi zituzten abuztuaren 9an eta gazteak auzoan barrena ibili ziren Ion Beloki eta Antton Arruti trikitilariekin. Abuztuaren 15ean, kros igoeraz nahiz bertsolarietaz gozatzeko aukera izan zuten auzotarren bazkaria baino lehen.

Abuztuaren 16an lehen aldiz San

Martin aztarnategian egin zen festa eta antolatzaileak pozarren daude, jende ugari bildu baitzen aztarnategi ingurura. Meza nagusiaren ondoren, Eskudero eta Beloki bertsotan aritu ziren. Dantzarien saioa ikusgarria izan zen. Giro apartarekin hasi zena giro hobearekin amaitu zen, gauean jende ugari bildu baitzen Gaztañaga sagardotegian egindako bertso afarian.

## SAN ROKE KROS IGOERA

### MARKA ONENAK, AURTEN



Sekulako markak ipini dituzte aurten lasterketako irabazleek. Oporretan inguruan zebilen **Pedro Jose Hernandez** (26:31) Cacereseko suhiltzaileak minutuko alde atera zion azken bi urteetan proban garaile izan den **Imanol Rojo** tolosarrari (27:35). Emakumezkoetan Murgiako **Elena Luyok** ere marka onena ezarri zuen (31:18).

Pozarren zegoen bestea Jose Manuel Talavera andoaindarra zen, zozketan asteburu osoko egonaldia irabazi zuelako.



Lehen aldiz meza nagusia San Martin aztarnategian egin zuten, inoizko parte hartze handienarekin.



Giro ederra sortu zen jaien kokapen berrian.



Giro ona jarri zuten dantzariak. Bertsolariak, trikitilariak eta toka txapelketa izan ziren gero.



San Rokeko mus txapelketako partaideak. Goian, zutik eskuin aldean, Migel Angel eta Jose Joakin irabazleak.

# Jende ugari Goiburuko San Esteban jaietan

**AUZOTARREN ETA HERRITARREN PARTE HARTZE HANDIAREKIN IGARO DIRA AURTEN ERE GOIBURUKO JAIK. DESAPIYUA ETA SAGARDO DASTAKETA GOGOAN HARTZEKOAK IZAN ZIREN, BAITA ERRETEGIKO JABEEI EGINDAKO OMENALDIA ERE.**

**G**azteen egunarekin hasi ziren jaiak uztailearen 31n Goiburun. Goizean goiz oilasko joakoaren bueltari ekin zieten gazteek eta baserriz baserri egin zuten ibilbidea. Hogei lagun inguruk hartu zuten parte eta umore onez hasitako goiza umore hobean amaitu zuten San Esteban erretegiaren egindako bazkarian. Horren ostean, trikipoteoa egin zuten festarekin jarraitzeko.

Ostiralean ere izan zuten zer ospatu auzoan, abuztuko lehen eguneko arratsaldea ekintzaz beterik eduki baitzuten. **Kantujirakoek** alaitu zuten auzoa eta bata bestearen atzetik abestutako kantuekin gosea piztu eta auzo afarian amaitu zuten. Gainera, **Unai Ormaetxea Jauregiren** bakarriketa izan zuten afari ondorena goxatzeko. Egunari amaiera emateko, **Ingo al deu?** taldearekin dantzaldia izan zuten.

Batzuk parrandako ajea izango bazuten ere, beste askok korrika hasi zuten larunbata. Izan ere, Malkar krosaren XI. edizioa izan zen goizean. 75 korrikalarik hartu zuten parte eta **Abderrahim El Qayed** tolosarra eta **Vanessa Pelaez** andoaindarra nagusitu ziren. Arratsaldean, XI. Artzain txakur txapelketa eta ardi moztailak aritu ziren Goiburuko zelaietan eta eguraldi ona lagun, jende ugari gerturatu zen ikustera.

Dena den, jarraian egindako desapiyuan bildu zen jende gehien. Izan ere, urtero bezala, aurtan ere jende andana erakarri du **Goiburuko desapiyua**. Emakume, gizon, haur, gazte eta helduek hartu zuten parte desapiyuan. Gogoz aritu ziren kirolariak, eta baita beraiei animatzera gerturatu ziren guztiak ere. Izan ere, oihu, aholku eta animo izugarri entzun ziren Goiburuko plazan. Gainera, proben artean **Unai Mendizabal** eta **Haritz Mujika** bertsolariak aritu ziren bertsoetan, partaideen abileziak eta desafioaren inguruko iritzia kantatzeko.

## PROBA BEREZIAK DESAPIYUAN

Lehenengo, artoa aletu eta lokots apustua egin zuten. Artoa aletzen lau emakume aritu ziren eta argi eta garbi erakutsi zuten esperientzia ekintza horretan. Urdinek aurrea hartu zieten eta lehenengo hasi ziren lokots bilketan. Haurrak aritu ziren horretan eta espero bezala, urdinak izan ziren lehen probaren garaile.

Ondoren, pirinkarekin bi itzuli egin zituzten. Ederki moldatu ziren gazteak eta nahiko paretsu ibili ziren, itzuli bat urdinek irabazi baitzuten eta bestea gorriek. Hirugarren proba oiloak lumatzea izan zen. Ez da lan erraza eta taldeko beteranoek hartu zuten postua. Bertsolariak ere aitortu zieten inoiz ez zirela horretan aritu, baina biek erakutsi zuten izugarritzko abilitadea lumaketan. Horregatik, biek garaile izatea merezi zutela erabaki zuten. Horren ostean, pazien-



Desapiyuak ikusmin handia sortzen du auzotarren eta herritarren artean.



## Omenaldi ekitaldia

Aurtengo jaietan San Esteban erretegioko jabeak omendu zituzten. Izan ere, abuztuaren 3an 41 urte bete ziren **Juan Lopez de Munain** eta **Mari Karmen Txapartegik** San Esteban erre-

tegia ireki zutela. Aurtengo urrian jubilatuta eta taberna ixtea erabaki dutenez, Goiburuko festetan omenaldia egin zieten orain arteko lana aitortzeko asmoz.

**Urrian jubilatuta eta taberna ixtea erabaki dutenez, San Esteban egunean omenaldia egin zieten San Esteban erretegioko jabeak**

**Urtero bezala, aurtan ere jende andana erakarri du Goiburuko desapiyua**

tzia handiarekin sagarrak bildu eta karretilarekin plazari bi buelta eman zituztenez, eta azkenik, txapel jaurtiketa egin zuten.

Talde urdina eta gorria elkarren aurka jarri eta kiroltasun handiarekin lehiatu zuten, azken finean, helburua ez baitzen irabazle bat izendatzea, proben bidez auzoa girotea baizik.

## SAGARDO DASTAKETA JAIK BUKATZEKO

Festa giroan pasa zituzten lau egun Goiburuko auzotarrek eta sagardo dastaketaekin eman zieten amaiera jaiak. Jana eta edana nagusi izan ziren igande arratsaldean Goiburuko jaietan. Baltzola trikitilariak jo bitartean, Sarasola, Irigoien, Zabala, Otsua enea, Gaztañaga, Aburuz, Kalonge, Eguzkitza, Etxeberría eta Larrarte sagardoak dastatzeko aukera izan zuten. Horrez gain, San Estebango etxeandreen patata tortilla pintxoak eta andoaindarrek egindako taloak ere bai. Jana eta edana, beraz, aitzakia nahikoa izan zen andoaindarrek auzoan elkartu eta hitz eginez eta dantzatzuz San Estebango jaiak agur esateko.

[www.aiurri.com](http://www.aiurri.com)

Argazkiak, bideoak, kronikak





Oilasko biltzaileen bazkaria San Esteban erretegian.



Desapiyoko bi partaide, oilaskoak lumatu ondoren.



Auzoko eta herritar askoren ikusmina piztu zuen Desapiyuak.



Mota guztietako ekintzak eginez lehiatu ziren bi taldetan banaturik. Sagarrak ere bildu zituzten.



Jana eta edana nagusi izan ziren Goiburuko azken jai egunean.



Basataloak taldeak beste behin ere bertako osagaiekin egindako talo bikainak eskaini zituen.



Sagardo dastaketa jendetsuarekin eman zieten amaiera jalei.



Baltzola anaiekin dantzatzeko aukera aprobetxatu zuten batzuk.

# Jaiari gorazarre Karrikan eta Etxeberrietan

**EGURALDI BIKAINA LAGUN, JENDE UGARI IBILI ZEN ETXEBERRIETA AUZOKO JAIETAN, ETA BALORAZIO BAIKORRA EGIN DU JAI BATZORDEAK. EZ BAITA ERRAZA BOST JAIEGUNETAKO EGITARUAU OSATZEA.**

**U**ztailaren 25etik 31ra ospatu zituzten auzoko festak Etxeberrietan. Eguraldi onak lagunduta, ekintza ugaritan parte hartzeko aukera izan zuten andoaindarrek. Lehenengo egunetan haurrentzako ekintzak nabarmendu ziren, haur marrazketa lehiaketa eta apar festa, besteak beste. Edonola ere, helduentzat ere izan ziren ekintza ugari: tortilla patata lehiaketa, artzain zakur erakustaldia, auzo bazkaria... Hala, denentzat pentsatutako ekintzak izan dituzte aurtengo egitarauan eta jende ugari bildu da aurtengo festetan.

Ekintza aipagarri asko izan dituzte; esaterako, uztailearen 27an, igandean, Jaime Martin boxeolari ohia omendu zuten. Festen amaieran, auzo bazkaria izan zuten eta bertaratutakoak oso gustura agertu ziren. Nahikoa jan eta edan ondoren, dantzan ibili ziren Los Rubi taldearen musikarekin eta ondoren, sardina jatea eta "Alma Navarra" kontzertuak izan zituzten festei agur esateko.

## HITZORDUZ BETERIKO ASTEBURUA KARRIKAN

Karrikako jaiak uztailearen 18tik 20ra ospatu ziren. Jai batzordea sortu zela 25 urte bete ziren eta horregatik, esker berezia eman zieten hasierako sortzaileei. Pregoiean adierazi zuten bezala, "Karrika martxan dago" lelopean borroka egin eta jai batzordea sortu zuten, auzora alaitasuna eta bizitasuna ekarritz. Urte hauetan guztietan auzolanean aritu dira jaiak aurrera ateratzeko eta taldeari esker, urtero-urtero ospakizuneko asteburuan murgiltzen da Karrika.

Aurten ere asteburu ederra igaro zuten eta era guztietako hitzorduak izan zituzten: danborrada, play back saioa, kontzertuak, sardina eta txistorra jana... Jende ugari gerturatu zen, izan ere, auzoko festak izanda, etxetik kalera irten eta auzokide zein herrikideekin egoteko aprobetxatu zuten askok.



Etxeberrietako jai batzordeko antolatzaileak, auzo bazkarian ateratako argazkian.



Sagardo dastaketa bitartean, haur eta helduak jolasean aritu ziren.



Sagardoa eta pintxoak dastatzeko elkartu ziren auzokideak.



Atzoko eta gaurko auzotar ugari hurbildu zen jaien azken eguneko auzo bazkaria.



Bazkariaren ondoren, Los Rubi taldearekin aritu ziren dantzan.



Karrikako danborradako kideak, uztailearen 19ko gauean.



Playback lehiaketak eta La Jodedera taldearen emanaldiak arrakasta handia izan zuen.

# Elbarrenan asteburua bete jai dator

OSTEGUNEAN HASI ETA ASTEARTERA BITARTE ELBARRENA JAI GIROAN MURGILDUKO DA. SEI JAI EGUN DENERA, ETA HERRITARRAK NAHIZ INGURUKOEN FESTA GOGOA ASETZEKO HAMAIKA HITZORDU.



Gazte eguna irailaren 5ean izango da, ostiralean.



Irailaren 8an, astelehena, kros mistoaren edizio berria izango da.

## Irailak 4, osteguna

- 19:00 Danborrada herrikoia "Jun da Jo" txarangak lagunduta.
- 19:45 Zizurkilgo Oporretan Euskaraz-eko haurren ikuskizuna.
- 20:00 Txupinazoa eta Melokotoiaren aurkezpena, Ihartzako Bernarda-ren eskutik (Txanpain botilak eramatea gogoratu).
- 20:20 Danborrada.
- 21:30 Herri afaria Pasmus jate-txearen eskutik. Afaria bukatu ostean, txarangaren doinuek alaituko dute giroa.
- 02:00 Karaokea.

## Irailak 5, ostirala

### Gazte eguna

- 11:00 Jokulandia.
- 14:00 Bertso gazte bazkaria.
- 17:30 Jolas-kantak Aurrera plazan. Ondoren, txokolata eta buruhandiak.
- 18:00 Batukada Dinbi Banda taldearen eskutik.
- 22:30 Suzko zezena.
- 22:30 Kontzertua: Arkada, Governors eta Muyayo Rif.

## Irailak 6, larunbata

### Mozorro eguna

- 11:00 Makillaje tailerra. Haurrek mozorrotuta etorri behar dute eta aurpegia margotuko zaie bertan.

- 12:00 Marrazki lehiaketaren erakusketa eta sari-banaketa.
- 14:00 Herri bazkaria.
- 19:00 Asto karrera.
- 20:15 Balkoietako lore apainketa lehiaketaren sari banaketa. Balkoien aukeraketa egunean zehar bozkaturko dira, plazan bertan.
- 20:30 Kapoeira ikuskizuna eta ikastaroa.
- 00:00 Dantzaldia Laket musika taldearekin. Atsedendian, mozorro lehiaketa.
- 07:30 Diana dultzainaz lagundurik.

## Irailak 7, igandea

- 11:00 Sagardo eta sardina dastaketa Urkamendi elkar-txearen eskutik.
- 13:00 Herriko haurren euskal dantza ikuskizuna.
- 16:00 VI. Joxe Arregi mus txapelketa.
- 17:30 Kantu kale erraldoi eta buruhandi konpartsarekin.
- 19:30 Jon Plazaolaren bakarrizketa saioa. Ogitarteko iluntzea. Afaria plazan bakoitzak bere ogitartekoa ekarrita, mahaiak eta aulkiak egongo dira.
- 21:30 Bi bala bertso ikuskizun musikatua.

## Irailak 8, astelehena

- 19:00 VII. Kros mistoa. Ondoren herriko kirolari hoberenaren izendapena.

## Irailak 9, asteartea

- 11:30 Haur jolasak.
- 12:00 Meza nagusia.
- 13:00 Jubilatuen jokoak. Ondoren bazkaria Atxulondon.
- 17:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotot. Buruhandiak.
- 19:00 Mariatiak.
- 22:00 Bertso saioa. M.Lujanbio, A.Arzállus, A.Martin eta I.Elortza. Gai-jar-tzailea: Amaia Agirre.
- 00:00 Melokotoiaren hileta eta lur-ematea.

# OGI ZURI

# OGI GOXO

OKINDEGIA, S.L. Lizarra-etxea, 32. Elizmendi auzoa ASTEASU ☎ 943 691 896

OGI-ZURI Bulandegi bidea, 1-3 ZIZURKIL ☎ 943 691 000

OGI-GOXO Kale Nagusia, 26 AMASA-VILLABONA ☎ 943 693 294

FESTAK ONDO IGARO!

Ogi berezi eta artesanak - Etxerainoko zerbitzua

# Talleres

# ARRASTOA<sup>s.l.</sup>

Ondo igaro jaiak!

**Mandrinatzeko eta fresatzeko makina-lanak**

Ernio bidea, 25 - Poligonoa. 35. Pabilioia / 61 P.K. Zizurkil  
Tel.: 943 694 441 - Faxa: 943 694 102 - arrastoa@euskalnet.net

## ANDOAINGO GUDUA 1837

# ORAIN LAMINAK SALGAI

600mm x 420mm

IRAILAREN 8TIK AURRERA

### SALGAI:

ANDOAIN  
Stop, Delgado eta Ernaitza liburudendak.  
Leitzaran markoak (Kale Berria) eta  
Aiurri (Arantzibia plaza, 4-5)

**Sorta osoa: 25 € (4 lamina)**  
**Laminak banaka: 8 €**

Erne! Aiurriko harpidedunek eskaintza berezia dute hamaboskariaren bitartez (20 €) Ikus 435. zenbakia, irailaren 19an

# Erraldoi eta buruhandi berriak Zizurkilen

**DUELA LAU BAT URTE HASI ZIREN ZIZURKILEN ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSA OSATZEKO IDEIARI BUELTAKA, TARTEAN IKER URRUZOLA HERRITARRA. KONPARTSA OSATZEN HASITA, ILUSIOZ GAINEZKA DAUDE.**



Zizurkilgo erraldoi eta buruhandi berriak, eurak egiten parte hartu duten hainbat herritarrekin batera.

**Z**izurkilek bazituen buruhandiak, baina ez inguruko herri gehienek bezala, erraldoiak, eta arraroa zen hori. Erraldoiak egitea erabaki genuen, beraz, eta buruhandiak berritzea; orain artekoak zaharkituta baitzeuden eta pisu handia baitzuten”, argitu du Ikerrek. “Erraldoi nahiz buruhandi berrien buruak Irungo elkarte batek egin ditu eta erraldoien barruko egiturak nahiz arropak herritarren artean osatu dituzte, auzolanean. “Erraldoien egitura egiten 6-7 pertsona ibili gara eta arropak jubilatuta taldeko kideek egin dituzte, beste hainbat herritarrekin batera. Ideia proposatu orduko baiezkora erantzun ziguten denek”. Egin zuten lehenengo lana gaia aukeratzea izan zela ere zehaztu du, “erraldoi berriak egiteko gai orokorra aukeratu dugu aurtengoan. Zizurkil goian bereziki, baserriak izan duen pisua kontuan hartuta, gure arbasoei omenaldi txiki bat egitea erabaki dugu.

Ezaugarri ezberdinak hartu ditugu kontuan baserriarrak isplazterakoan: baserriko giroa eta lana batetik; aitona eta amona bestetik, pertsona helduei zor zaien errespetuarekin”. Aurrera begira ere ez daude geldirik egoteko asmoz; aurren bi erraldoi egin badituzte, datorren urterako beste bi erraldoi egitekotan dira. “Hainbat herritar erraldoi nahiz buruhandiei bizia emateko prest azaldu da eta pixkanaka, herriko konpartsa ederra osatu nahiko genuke luzera begira. Dagoeneko buruan dugu hurrengo erraldoia nor izango den: herriko pertsonarik famatuena, euskal kulturaren adierazgarri, bertsolari nahiz olerkari, herriko seme kuttun: Pello Mari Otaño. Laugarren erraldoia emakumea izango da, oraindik jakinaraziko ez duguna”. Erraldoiekin batera buruhandi berriak ere bai, biak ere euskal mitologiako pertsonaiekin lotuta, “infernuko txikitoa edo deabrua eta euskal sorgina. Buruhandiak berritzeko

**“Zizurkil goian bereziki, baserriak izan duen pisua kontuan hartuta, gure arbasoei omenaldi txiki bat egitea erabaki dugu”  
Iker Urruzuola**

bi arrazoi izan ditugu: aurrekoak oso pisutsuak ziren eta zaharkituta egoteaz gain, konpartsa seriotasuna eman nahi bagenion zer edo zer egin behar genuela argi geneukan. Eta bai, pausoa ematea erabaki dugu. Oraingoak berriak eta arinak dira, arnasa erraz hartzeko aukera ematen dutenak”. Zizurkil goiko festetan lehen bi buruhandiak estreinatu bazituzten, Zizurkil beheko festetan aurkeztuko dute hirugarrena, bizia eta polita. Hurrengo urtean iritsiko da laugarren buruhandia.

## HARRERA BEROA ZIZURKIL GOIAN

Herriko gazteak arduratuko dira buruhandien barruan korrika eginez haur eta gaztetxoak xaxatu nahiz erraldoiak dantzan jartzeaz. “Zizurkilgo erraldoiak oso arinak dira, 25-30 kilo arteko pisua dute eta 3’5 metroko altuera. Hala ere ez da batere erraza erraldoiak dantzan jartzea, pixkanaka ikasi beharrekoa. Aurrera begira, gure asmoa erraldoi bakoitzeko bizpahiru pertsona egotea litzateke, txandakatu ahal izateko”. Ikerrek azaldu duenez, erraldoiak egin nahiz mugitzen erakusteko orduan laguntza handia jaso dute Añorga eta Goizuetako konpartsetako kideen eskutik, “Zizurkil goiko festetan gurekin izan ziren erraldoi eta buruhandiak kaleratu genituen lehen egunean eta Zizurkil beheko festetan ere gure artean izango dira Villabona eta Andoaingo erraldoiekin batera”. Zizurkil goikoa esperientzia oso polita izan zela aitortu



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

ALBIZU



KIROILAK

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Kale Nagusia, 2 - Tel.: 943 693 131 - VILLABONA

**“Herritarrekin konpartsa indartsua osatu eta Zizurkilen ordezkari izan nahi dugu nonahi”  
Iker Urruzuola**

du Ikerrek, “oso harrera ona izan du ekimenak, herritar askok zoriondu egin gaitu. Giro ona sortzen du herrian eta datorren urtean, herriko pertsonaiak tartean direla, oraindik eta gustukoagoa izango dela iruditzen zait”.

**ZORTZI-HAMAR ERRALDOIEKO KONPARTSA KALERA**

Irailaren 7an, igandearekin, Kantu kalerekin batera, erraldoi eta buruhandien konpartsa zabalak zeharkatuko ditu Zizurkil beheko kaleak, 17:30etatik aurrera. “Azken urteetan herritarren dantza emanaldia eskaintzen zen egun horretan, baina azken aldian ekimen hori zertxobait jaitsi egin dela ikusita, etena egitea erabaki zen. Erraldoien gaia aurrera atera denez, ordea, ekimen berri honekin ordezkatu da aurrekoa. Kantu kaleko kideekin batera Zizurkil eta aurrez aipatu beste herrietako 8-10 erraldoi ibiliko dira kalejiran. Hiru buruhandiak herrikoak izango dira. Giro polita sortuko dela uste dut”, aurreratu du zizurkildarrak. Ilusio biziz aurkitzen dira ekimen berriaren aurrean, “parte hartzeko modu bat baita”. Eta hain zuzen, parte hartzea, horixe da Ikerren ustez, indartu behar dena. “Herritar gazte eta bereziki helduagoek, festen antolaketan gehiago parte hartu beharko luketela uste dut, agerian bezala itzalean. Auzolanak gertukotasuna sortzen du; erraldoi eta buruhandien kasuan bezala, geure sentitzea”. Ikerrek eskerrak eman nahi dizkie erraldoi eta buruhandiak egiten laguntza eskaini dieten Talleres Amondarain, Zizurkilgo Udala eta herritar guztiei, “eskatu ahala eman digute laguntza eta eskertzekoa da hori. Herriarentzat oso aberasgarria delakoan, Udala bera zeharo murgildu da ekimenean, gertutasun handia erakutsiz”. Aurrera begira, euren helburua konpartsa osatu eta bereziki herrian, baina herritik kanpo ere kalez kale ibiltzea da. “Herritarrekin konpartsa indartsua osatu eta Zizurkilen ordezkari izan nahi dugu nonahi. Eta noski, beste helburu bat ere badugu: Zizurkil goi eta behe lotzea, herriaren konpartsa baita gurea”.



Zizurkilen ere erraldoi eta buruhandiak, toki askotan bezalaxe, ezinbestekoak dira jaietan.

**Kros mistoa irailaren 8an**

Zazpigarren edizioa beteko du aurturten Zizurkilgo kros mistoak. Herri barruko ibilbide lauean barrena, bost kilometro osatuko dituzte korrikalariak. Neska-mutilez osatutako bikoteetan egiten dute korri eta biak elkarrekin helmugaratzea da baldintza nagusia. Astelehenean, arratsaldeko 19:00etan emango zaio hasiera aurtengo kros mistoari. Aurrez, haur eta gaztetxoek lasterketa egingo da. 2001 edo ondoren jaiotakoek izango dute parte hartzeko aukera.

Kros mistoan parte hartu nahi dutenek, Zizurkilen bertan egin ahal izango dute izen-ematea, frogahi baina ordu bete lehenago. Doakoa izango da parte hartzea eta gainera, lasterketa amaituta afariak zozketatuko dituzte korrikalari guztien artean. Sari-banaketa ekitaldian, bestalde, Zizurkilgo kirolari onenaren izena jakinaraziko dute.

**Bertsoak gazte bazkarian**

Gazteen bazkaria berezia izango da aurturten. Harituz bertsozale taldeak neguan antolatutako herriarteko txapelketan eskualdeko hainbat gazte hartu zuen parte. Gazte horietako batzuk kantuan ariko dira ostiraleko gazteen bazkariari puntu umoretsu eta berezia emateko.

**Mozorro eguna**

Irailaren 6an, larunbatekin egingo dute mozorro eguna. Gaez egin izan ohi da beti mozorroen festa, baina aurturten, egun osoan zehar izango da jantzi bitxiak ikusi eta herritarren irudimenarekin gozatzeko aukera. Goizean, hurrek ekingo diote festari, mozorroak jantzi eta makillaje tailerren aurpegiak margotuko dituzte. Arratsaldeko 19:00etan asto karrera egingo dute gazteek, hauek ere mozorrotuta. Gaueko erromeriaren atsedendian ospatuko dute mozorro lehiaketa.

**Kate motzean, Iker Urruzolarekin**

**Festetarako gogoz?**

Bai. Festazalea eta zizurkildarra naiz. Festak iristeko desiatzen nago.

**Zein ekintzatan hartuko duzue parte?**

Ahal dudan gehienetan: Herri afarian, koadrilen arteko bazkarian, ahal badut asto karreran, mozorro festan, erraldoi-buruhandi eta Kantu kaleko kideen kalejiran, melokotoiaren hiletan, kontzertuetan, dantza ikuskizunetan ikusle... Etxea gutxi zapaltzen dut festetan.

**Jaietako ekintzarik gustukoena?**

Lehenengo gaua, beti: herri afaria. Xarma berezia du gau horrek. Urte guztian hitz egin gabe ko herriarrek batera bukatzen dugu parrandan. Bat-batean txuria eta beltza gris bihurtzen dira gau horretan. Egun guztiak ditut kuttunak, baita koadrilen eguna ere.

**Ezer gehituko al zenukete egitarauan?**

Egitarauan gehitu ez, jendea gehituko nuke nik egitaraua egitera. Festa batzordean lan asko dago egiteko, baina jende gutxi. Gazteak bai, baina edadeko pertsonak ere gerturatu egin beharko lukete festa batzordera. Esaterako, gus-tura ikusiko nituzke 60 urteren bueltako herri-tarrak herri kirolak antolatzen.



**Gaua edo eguna nahiago?**

Gero eta gehiago gustatzen zait eguna, parranda luzeagoa baita egunez hasiz gero eta parte hartzeko aukera ere bai.

**Festetan jateko? Eta edateko?**

Jateko, mahaian dagoena. Edateko, berriz, jatorduetan sagardoa eta gauean garagardoa. Konbinaturen bat ere bai, noski.

**Mezuren bat herritarrei?**

Lotsik ez izateko. Lepoan zapia hartuta kalera atera eta parte har dezatela. Egitarautik kanpo ere euren festa egitera animatzeko: bazkari, afari, poteo... Igandean bokata afaria izango da lehenengoz. Halako aukerak aprobetxatu egin behar dira giroa sortzeko.

**Amondarritz**  
ITURGINTZA, S.L.

**Iturgintza, gasa, berogailuak, petroleogaien hornidura**

Ugalde etxea, 6. eskuina - Larraul 943 693 963 • 607 186 877

**JOXEAN HARATEGIA**

**BASERRIKO HARAGIA URDAITEGI BEREZIA**

**Jaietan ere on egin!**

Bulandegi bidea, 1. Zizurkil. 943 696 242

# Zizurkil Goian, *juerga eta festa*

**"HEMEN DA HERRIAN NAHIA, BENETAN EGUN ALAIA, JUERGA TA FESTA, KATXONDEOA, LEHERTU DADILA JAI!" ABESTUZ HASI ZITUZTEN JAIK ABUZTUAREN HAMALAUAN.**

**O**ilasko biltzaileak goizean baserri ibili ondoren, **Aitziber Ibarbiak** jaien hasierako su-ziria bota zuen eta segidan, oilasko biltzaileek Soka-dantza dantzatu zuten. Arratsaldean, jende ugari bildu zen katerik gabeko bizikleta jaitsean, baita herri afari eta Laiotzek giro-tako dantzaldian ere. Ama Birjinaren eguneko ekintzarik indartsuenak herri kirolak eta bertso saioa izan ziren. Herriko gazteek kirol lehia egin zuten eta artoak aletzen, koskol apustuan, zaku karreran, ingudean, trontzan, sagarrak biltzen, lasto jaurtiketan eta sokatiran aritu ziren. Berde eta urdinen aurkako norgehiagoka estu ibili zen eta horrek partehartzaileak eta bertaratu zirenak piztu zituen. Sagardo dastaketaren ondoren, puntako bertsolarien emanaldia izan zen, eta aurten gainera, **Unai Mendizabal** zizurkildarrak parte hartu zuenez, izugarrizko jendetza bildu zen.

Biharamunean, herri kirolen erakustaldia eta idi-probak egin ziren. Preso eta errefuxatuen gaua ospatu zuten eta pilota partiden ostean, Vendetta eta Zesumak goizaldera arte luzatu zuten festa. Abuztuaren 17a haurren eguna zenez, txikienek mota guztietako ekintzez gozatu zuten. Gauean, oilasko afaria izan zen eta dantzaldiarekin eman zieten amaiera jaiari.



Vendetta taldearen kontzertuan plaza, gutxitan bezala, jendez lepo bete zen. Irudia ikusgarria zen.



Taldeka bildu eta jaien parte hartzeko aukera eskaintzen du mozorro lehiaketak.



Unai Mendizabal gaztea bertso saioan parte hartzeaz gain, mozorro lehiaketako protagonista izan zen.



Mozorro lehiaketak amaiera ematen die jaiari.



Oilasko biltzaileak, baserrietatik ibili ondoren plazara iritsitako uanean.



Artzain zakur txapelketako lehen saria Zarautz aldera joan zen.



Herri kirolak egin ostean, sokatiran aritu ziren Zizurkilgo gazteak.



Giro aparta sortu zen sagardo dastaketan.

# Hamaika irudi gogoangarri Santiotan

**EKINTZA UGARI IZAN ZIREN VILLABONAKO SANTIOETAN ETA IRUDI BAT BAINO GEHIAGO GERATUKO ZIREN ASKOREN OROIMENEAN. HORIETAKO ASKO IKUSGAI DAUDE AIURRIK FLICKR ETA YOUTUBEN DITUEN GUNEETAN.**



Erroneri eguneko sagardo dastaketa oso jendetsua izan zen.



Gazte eguneko poteo kalejiran gazteak mozzorrotuta aritu ziren dantzan.



Ezkerretik hasita hirugarren, Amadou Salah, ibilbideko lehen itzulian. Kroseko irabazle izan zen.



Txupinazoaren ostean, futbitoko finalak jokatu ziren. Kauxbi taldea izan zen garaille.



Zumba praktikatzeko aukera izan zuten billabonatarrek.



Soka-dantzaren amaieran, dantzariak eta herritarak kalejiran.



Presoen alde ateratako argazkia, buruhandi eta guzti.



Bolo tiraldia egin zen Errebote plazan, Santa Ana egunean.

# Gogoratzeko moduko

**HIRIBURU HANDIETAN BEZALA, ZAZPI EGUN ETA ZAZPI GAUEKO JAIK VILLABONAN! URTE OSOKO ZAMAK ALDE BATERA UTZI ETA FESTARAKO TARTEA IZATEN DA, DUDARIK GABE. EKINTZAZ BETETAKO FESTA ALAIK IZAN ZIREN, GIRO ONA NAGUSITUZ.**

**U**ztailaren 24 arratsaldean, **Xake Joku** elkarteko kideak taula gainera igo eta festa onak igarotzeko mezua zabaldu zieten herritarrei txupinazoa lehertu aurretik. Herritarrez lepo beteta zegoen Errebote plaza eta suziariaren ostein, herria kolorez eta festa giroz jantzi zen. Erraldoi eta buruhandiak kalejiran aritu ziren **Iraunkorrrak** txarangarekin eta ondoren, futbito finala jokatu zuten herriko bi taldek. Tentsio betean egon ziren jokalariek nahiz bertaratu ziren herritarrek, eta azkenean, **Kauxbi** taldeak lortu zuen garaipena. Herri afarira ere jende ugari animatu zen eta horren ostean egindako danborradak alaitu zituen kaleak jaietako lehen gauean. Gaueko kontzertuek jende asko erakarri zuten; Izeberg, eta batez ere, **Zea Mays** taldeak. Plaza jendez bete zen eta giro ederra nagusitu. 40 urtetik gorako emanaldian ere gustura ibili ziren Txistulari plazan.

Santio eguna dianarekin esnatu zen goizean goizetik eta horren ondoren, Zunbeltz elkarteak antolatutako XXIV. herri krosak eman zion hasiera uztailaren 25eko egitarauari. Villabonako eta inguruko herrietako haur, gazte eta helduek parte hartu zuten eta eguraldia kili-kolo egon arren, azkenean ateri eman zituzten pausoak korrikalariek. Proba nagusian, gizonezkoen artean, **Amatou Salah**-k irabazi zuen eta **Raul Gomez** geratu zen bigarren. Emakumeen artean, berriz, **Lurdes Colomo** iritsi zen lehena eta **Miriam Perez** bigarren. Herritarren artean, **Patxi Urizar** eta **Leire Goenaga** iritsi ziren azkarren helmugara.

Eguerdian, Loatzo musika bandaren emanaldiak ere arrakasta handia izan zuten.



Herria kolorez bete zen koadrilen eguneko kalejiran. Irudian, Kale Nagusira bidean.

**Eresargi eta Eresargi Txiki abesbatzak Umamarekin batera Amalur parkean aritu ziren lehen aldiz eta festetako berritasunetako bat izanik, ikusmin handia sortu zen**

Eguraldi kaskarra medio Gurea aretoan egitea erabaki zuten, baina, hala ere, jende andana bildu zen. Arratsaldean, **Oinkari** dantza taldeko kideek gidatutako Soka-dantzak girotu zuen plaza urtero legez. Eskuetan zapi zurriak eta oinetan alpargatak jantzita soka bat osatu eta dantza emanaldi ederra eskaini zuten billabonatarrek Malakar plazan. Berrikuntza ugari izan zen gainera; lehenengoz Oinkari dantza taldeko neskek ere parte hartu baituzten mutilekin batera, goitik behera zuriz jantzita. Bestalde, Udalbatzako kideek ere dantzan hartu zuten parte lehen aldiz. Jende andana bildu zen herrikideak ikustera eta, eguraldiak lagunduta, ikuskizun apartaz gozatzeko aukera izan zuten. Horren ostean, sokamuturra izan zen, baina ekintzarik aipagarriena gualdera iritsi zen. Izan ere, **Eresargi** eta **Eresargi Txiki** abesbatzak **Umamarekin** batera Amalur parkean aritu baitziren lehen aldiz eta aurtengo festetako berritasunetako bat izanik, ikusmin handia sortu eta jende ugari bildu zen kantuak entzutera.

**SANTA ANA EGUNA ETA BIHARAMUNA**  
Santa Ana eguna, goizetik gauera ekintzaz beteriko eguna izan zen eta askok, bata edo bestea aukeratu behar izan zuten, ordu berean leku ezberdinetan



*Uda honetan ere, Aiurri.com gunean edizio jarraitua: Albisteak, azken ordukoak, agenda, argazkiak, bideoak eta auzoetako jaien jarraipena*

- **Sorabillako jaiak:**  
Irailak 5, 6, 7, 8.
- **Elbarrenako jaiak:**  
Irailak 4, 5, 6, 7, 8, 9.
- **Urnietako jaiak:**  
Irailak 26-Urriak 5.
- **Udako jaiak eskualdean:**  
Kronikak eta argazkiak gehigarri berezian.





# Santio jaiak

**Egunik jendetsuena izaten da koadrilen egunekoa eta aurten, beste behin, izugarritzko jendetza bildu zen Etxeondoko bazkarian**

hitzortu ezberdinak gauzatu baitziren. Dianarekin esnatu ziren billabonatarak uztailearen 26an ere, eta iluntzera arte izan zuten zer ikusi eta zer gozatu. Xake jokoa, eskulangintza azoka, zumba klase herrikoia, bola tiraldia, artelanen erakusketa, animalia ikusizuna... Mota guztietako ekintzak kale-ratu ziren eta jende ugari bertaratu zen guztietara, ikustera ez ezik, baita parte hartzera ere. Larunbata izanik eta, gainera, eguraldi aparta edukita, ez zegoen etxean geratzeko aitzakiarik. Goiz horretan egin zen Atari Bizi lehiaketako sari-banaketa ere eta aurten txapela **Maixabel Iñurritak** eskuratu zuen. **Nerea Ugalde** geratu zen bigarren eta **Miriam Ariznabarreta** hirugarren. Bestalde, aipamen berezia egin zioten **Lourdes Arruti**, etxeko leiho borobileko dekorazio-arengatik. Egitarau lehiaketako irabazle **Jon Ander Artolari** ere orduan eman zioten bere saria. Eguerdia aldera erraldoiak, ipotxak eta buruhandiak ikusi eta haiekin argazkiak ateratzeko aukera izan zuten haur nahiz helduek. Edonola ere, ekintza aipagarrienetako bat arratsaldean iritsi zen. Erreboten plazan erromeria izan zen protagonista eta sargardo eta pintxo dastaketa egin zen txarangak eta **Jota&Lierni** trikitiariak alaituta. Larrain dantzak eta Iratzar taldearekin egindako dantzaldiak eman zieten amaiera egunari.

Uztailearen 27ko goiza irristaketa lasterketak eta marrazki lehiaketak girotu zuten. Eguerdia aldera bertso pilota ekimen jendetsua izan zen, eta **Iñaki Lizaso** eta **Jon Erasunen** partida bateko, eta **Xabi Urbieta** eta **Antton Aranbururena** beste-ko, pilota partiden nondik norakoak kantatuz aritu ziren **Jexus Mari Irazu** eta **Amaia Agirre** bertsotan. Elkartasun bazkariarekin batera, elkartasun kalejira egin zuten eta horren ostean, giza probak izan ziren Maiatzaren Lehena plazan. Emakumeek 15 minutuko saioak egin zituzten 550 kiloko harriarekin. Astigarraga, Ibarra, Orio eta Zeanuriko emakume taldeek hartu zuten parte eta jende asko erakarri zuten plazara. Ibarako taldea lehen postuan geratu zen eta atzetik, gertu-gertura, Oriokoa.

Gauean lepo bete zen Olaederra kiroldegia, Oinkari dantza taldeak Poxpolo eta konpainiarekin eskainitako emanaldian.



Lain taldeko kideak eta Oinkari dantza taldekoak, Remiri egindako omenaldi hunkigarrian.

Erreboten plazan, bestalde, Tiktarak taldearen dantzaldia izan zen.

## AZKEN TXANPA

Biharamunean jubilatuek euren eguna ospatu zuten, goizean erakusketa eta eguerdian bazkaria eta dantzaldia eginenez. Gazteek ere izan zuten zer egin eta **Onddok** antolatutako bazkariaren ostean, poteo-kalejira egin zuten **Orkresta Nazionalarekin**. Eurria gogotik egin zuen, baina mozorroak soinean

jantzi eta barrutik nahiz kanpotik busti ziren gazteak. Musikariak euritik babesteko karpa txiki bat eskuetan hartuz mugitu ziren kaleetan barrena, eta euriak atertzeko asmorik ez zuela ikusita, dantza eta salto artean Gaztetxean hartu zuten babesa.

Villabonako Santioak festa luzeak dira, baina egun bat aukeratzekotan, koadrilen eguna aukeratuko lukete gehienek. Egunik jendetsuena izaten da eta aurten, beste behin, izugarritzko jende-

**Aurtengo Santio jaietako dozenaka argazki eta bideo sorta ikusgai daude Aiurrik internet sarean dituen ohiko guneetan**



Maixabel Iñurrita izan zen Atari bizi lehiaketako irabazlea. Nerea Ugalde geratu zen bigarren eta Miriam Ariznabarreta hirugarren.

tza bildu zen Etxeondoko bazkarian. Bapo bazkaldu ondoren, gazte eta heldu guztiak, koadrilako kamisetak soinean, txarangaren konpainian kalejiran ibili ziren. Saltoka eta dantzan ibili ziren kaleetan barrena eta batek baino gehiagok korri ere egin behar izan zuten, leihotatik botatuko ur baldekadak saihesteko asmoz. Gauerako indarrak gorde eta **Tximeleta** taldearekin ibili ziren dantzan.

Azken txanpara iritsita, festetako azken eguneko hitzordurik aipagarriena Remiren omenaldia izan zen. Uztailearen 31n bost urte bete ziren **Remi Ayes-taran** billabonatarra hil zela eta urtero moduan, aurten ere omenaldia egin zioten herritarrek. Lain taldeko **Leire Berasaluze** eta **Kristina Aranzabek** 'Zapalduen olerkia' kantaren bertsioa jo bitartean, **Oinkari** dantza taldeko lau kidek dantzatu egin zuten. Ondoren, Saharatik jasotako elkartasunaz hitz egin zuten eta baita **Gure Esku Dago** ekime-narekin bat eginez, kate txiki bat osatu ere. Emanaldi hunkigarria eta jendetsua izan zen. Gauean, herritarrek ateratako argazkien proiektzioa eskaini zen eta ondorengo diskofestak eman ziren amaiera Santioei.

# Ospakizun bikoitza Larraulgo jaietan

**LAU EGUNEZ JARRAIAN OSPAKIZUN UGARI IZAN ZITUZTEN, SAN INAZIO EGUNEAN HASI ETA SAN ESTEBAN EGUNERA ARTE. SAN BARTOLOME EGUNEAN OSPAKIZUNEI HELDU ZIETEN BERRIRO.**

**L**au egunez ospakizun ugari izan zituzten Larraulen, izan ere, San Inazio egunean hasi eta San Esteban egunera arte hitzordu ugari izan zituzten herritarrek. Plater tiraketak eta mus txapelketak eman zien hasiera uztailaren 31ko egitarauari. Jende ugari bildu zen eta eguna borobiltzeko, afariaren ostean Lorratzak taldeak emanaldia eskaini zuen museo aurrean.

Hurrengo eguna haurrentzat pentsatuta zegoen eta mota guztietako jolasak antolatu zituzten beraiantzat. Altxor bilaketarekin hasi ziren, segidan apar festa egin zuten eta haurren bazkariaren ondoren, "libertia" antzerkia eta Gorritiren animaliak izan zituzten. Haurrez gain, helduak ere bertaratu ziren eta guztiek giro ederra jarri zuten. Arratsalde horretan egin zuten txupinazoa eta herritarrek abestutako bertsoekin eman zieten ongi etorria Pello Joxeperi. Gainera, herriko Gurdi Soinu txarangaren laguntzaz, turuta eta tronpetak hartuta girotu zuten plaza.

Abuztuaren 2an ere ez zen aitzakiarik egon etxean geratzeko, izan ere, ekintza mordoa izan zituzten: pilota partidak, ping-pong txapelketa, herri kirolak, toka, kantu poteoa... Gainera, sagardo dastaketa batetik eta barrikote herrikoia bestetik, ez zen jan edanik faltatu.

San Esteban eguna festetako azken eguna egokitu zen eta, dudarik gabe, bertso saioa izan zen ekintzarik indartsuena. Punta-puntako bertsolariak bildu ziren aurtan ere, Lujanbio, Egaña,



Herri kirolen ostean, sagardoa eta pintxoak dastatzeko aukera izan zuten.



Bertsoak abestuz eman zieten ongi etorria Pello Joxeperi.

**Bertso saioan plaza bete egin zen. Eserlekurik gabe geratu zirenek zutik jarraitu zuten saioa**

Arzallus eta Elustondo aritu baitziren taula gainean. Plaza bete egin zen eta aulki librerik geratu ez zenez, askok zutik jarraitu zuten bertsoez.

Lehenengo urteko beroa gogoan hartuta hasi zuten emanaldia eta bertsolariak ikuskizun bikaina eskaini zuten bertaratutakoei.

## SAN BARTOLOME JAIA

San Esteban jaiez gain, San Bartolome eguna ere ospatu zuten Larraulen. Hegazti harrapakariekin erakustaldia egin

zuten eta meza nagusiaren ondoren, haurrentzat maiketakoia egin zuten Katillutxulon.

Segidan, ahari jokoa egin zen. Eguraldiak lagunduta, jende ugari bertaratu zen hitzordu guztietara, baita arratsaldeko pilota partidetara ere. Gainera, Ansorregi ta Larrañaga trikitilariak giro ederra jarri zuten plazan, arratsaldez nahiz gauetz.

# Indar erakustaldia Santamañako desafioan

**DESAFIOA IZAN ZEN SANTAMAÑAKO JAIETAKO HITZORDU BEREZIENTAKO BAT. HERRIKO BI TALDE ASTIGARRAGAKO EMAKUMEEN AURKA ARITU ZIREN GIZA PROBAN ETA IZUGARRIZKO ERAKUSTALDIA ESKAINI ZIETEN BERTARATUTAKOEI.**



Desafioa aitzaki, jende ugari bildu zen ermita atarian.



Herriko talde bat 700 kiloko harriarekin.

# Jaien hasierako suziria Txulobiren eskutik

**JAIETAKO EGUNIK JENDETSUENA KOADRILA EGUNA IZAN ZEN AURTENGOAN ERE. ABUZTUAREN HAMAZAZPIKO BAZKARIRA BERREHUN LAGUNETIK GORA BILDU ZEN FRONTOIAN.**

**B**i asteburutan ospatu zituzten herriko jaiak Adunan. Jaiak ofizialki abuztuaren 14an hasi baziren ere, aurreko asteburuan beroketak egin zituzten. Hala, larunbatean 50 jubilatu inguru bildu zen bazkaltzeko eta eguerdi paregabea igaro zuten. Arratsaldean, Trans-Ernio txapelketako XI. edizioko finalak jokatu ziren. Lehenengo, aurrebenjamin mailako hiru herritarrek eta billabonatar batek jokatu zuten; Inhar Iparragirrek eta Lander Zabalak 16-9 irabazi zieten Eneko Lizarazu eta Aritz Jauregiri. Jarraian, txapelketako finalak jokatu ziren.

Benjamin mailan, Andoaingo Arrilaga eta Belokik aurrea hartu zieten Adunako Ormaetxea eta Tolosako Iztuetari, 16-9ko emaitzarekin. Alebin mailan, Zeberio eta Alberdik 16-7 egin zuten Altuna eta Lopetegiren aurka. Infantiletan, Zalakain eta Goikoetxeandiak 18-12 irabazi zieten Ugartemendia eta Otaegiri; eta kadete mailan, Zubizarreta eta Alberdik 22-6 irabazi zieten Arruti eta Aizpitarteri. Jende ugari izan zen, eta herritarren animo oihuen artean, pilotariak ikuskizun ederra eskaini zuten.

Txekor jate eguna izan zen hurrengo egunean eta txekorra izan zuten jateko bazkarian eta afarian. Josu Amilibia alkatea pozik agertu zen, festen atarian



Txulobi pilota eskolako kideek bota zuten jai hasierako suziria.

parte hartze handia izan zelako. Edonola ere, festetako txupinazoa abuztuaren 14an izan zen eta Txulobi pilota eskolako kideek bota zuten jai hasierako suziria. Balkoian zazpi kide izan ziren eta denek festa onak igarotzeko esan zieten herritarrei. Suziriaren ondoren, gozokiak jaurti zituzten eta buruhandiak eritxen ziren giroa alaitzera.

Amabirjinaren egunean, eguraldi txarra medio, dantza saioak frontoian egin

**Jaietako egunik jendetsuena koadrila eguna izan da aurtengoan ere. 230 lagun inguru bildu ziren bazkarira**

zituzten. Festetako berritasuna haurren egunean etorri zen, izan ere, gurasoek sorpresa antolatu zieten herritarrei eta

puzgarri, jolas eta zipiztin artean eduki igaro zuten eguna, haurrek zein helduek.

Jaietako egunik jendetsuena koadrila eguna izan zen aurtengoan ere. Abuztuaren 17an izan zen eta 230 lagun inguru bildu zen bazkarira. Jaietako azkenetako ospakizunean ia herritar guztiak bildu zirela esan daiteke. Mozorro gauarekin eman zieten amaiera aurtengo jaiari.



Herritarren animo oihuen artean, ikuskizun ederra eskaini zuten pilotariak.



Benjamin, alebin, infantil eta kadete mailako finalak jokatu ziren Trans-Ernio txapelketan.



Dantzari txikiak ere txalo zaparrada jaso zuten.



Axeri-dantza, Adunako berezko ohitura zaharra. Urtea joan, urtea etorri, ikusgarria izan ohi da.

# Sanmielak - 2014 URNIETA

## Irailak 29

## VIII. Iñistor jaia Jakutegi plazan



**12:30 VIII. Maldan-gorako Iñistorra toka txapelketa, San Juan plazan.**

**14:30 Herri bazkaria.**

**Helduentzako menua 25€**

Bertan egindako paella, zekor biribilkia (redondoa) barazki eta patata purearekin, esnegainezko ijito besoa (brazo gitanoa) kremaz egindako saltsa eta kanelarekin, kafea eta belar txupittoa, koñaka edo patxarana.

**Haurrentzako menua 16€**

Makarroiak tomatea eta urdaiazpikoarekin, eskalo-pea txip patatekin eta sandwitx izozkia.

**Bazkarirako txartelak aurrez erostea ezinbestekoa da.**

**Azken eguna: irailaren 26a.**

**Jadanik salgai daude ondorengo lekuetan:**

**URNIETAN.**

- KANTOI tabernan (San Juan plazan)
- AMAILUR tabernan (Idiazabal kalea)

**16:30 Bertsolariak**

- Andoni Egaña (Zarautz).
- Uxue Alberdi (Elgoibar).
- Nerea Elustondo (Legazpi).
- Iñigo Manzisor, *Mantxi* (Zarautz).
- Gai jartzailea: Amaia Agirre (Villabona).

**17:30 "Urnietar Prestu"**

**2014 izendapena**

**Edu Muruamendiaraz** dantzaria izango da omendua.

**19:00 VI. Maria Arizmendi irrintzi lehiaketa, San Juan plazan.**

**Antolatzaile:** Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarra, Manuel Larramendi Kultur Bazkunea.

**Laguntzaile:** Txanbolin txistulari banda Egape Dantza Taldea. Banaiz Bagara elkarte.

**Babesle:** Urnietako Udala Aiurri astekaria.

Panpinak egitea edota Feng Shuia, ikastaro berrien artean

## Eskaintza zabaldu dute

**I**kasturtea hastarekin batera, urritik aurrera mota guztieta-ko ikastaroez gozatzeko aukera izango da. Kultura batzordeak bi ikastaro berri aurkeztu ditu. Batetik, **panpinen tailerra** azarotik otsailera bitartean. Materiala eza gutzen hasiko dira eta hasteko, pieza txiki bat egingo dute. Behin teknika hartuta, panpin bat egingo dute, bakoitzak nahi duen bezalakoa. **Fanny Alonso** irakasleak azaldu duenez, bakoitzaren irudimenaren eta trebetasunaren arabera izango da, baina, gutxienez, panpin bat egiteko aukera emango die. Matrikula 59 eurokoa da, eta kanpokoen kasuan 65.

Bestetik, azaroan **Feng Shui** egiteko aukera izango da **Lourdes Galarragaren** gidaritzapean. Jatorri txinatarra duen jarduera honek inguruneak gizakiaren energian duen eragina aztertzen du eta bertan harmoniaz kokatzeko bidea erakusten du. Espazio bakoitzaren energia nolakoa den ezagutzeko balio du eta, esate baterako, etxeko altzairuen kokapena egoki jartzen erakusten du. Matrikula 25 eurokoa da, eta kanpokoen kasuan 27,5.

Pintura eta marrazketarako hiru aukera egongo dira: astele-



Ikasturtearen amaieran lanak Lekaion ikusgai jartzen dituzte.

hen eta asteazken arratsaldetan **Arantza Gabinorekin**, astearte goizetan **Eduardo Arreseygorrekin** eta azkenik, irakasle berarekin, astearte arratsaldetan.

Arte aplikatuen ikastaroa **Leire Martinek** gidatuko du ikastaroa. Bestalde, **Patxi Monrealek** egurra tailatzen erakutsiko du.

Ikastaro hauek guztiak 16 urtetik gorakoei zuzenduta daude. Matrikulatu nahi duenak Bastorra edo Atarira jo behar du, irailaren 10etik 19ra bitartean, 10:30etik 13:30era edo 16:30etik 20:30era.

### ZUENA

Emakumeen taldeak ere ikastaroak antolatu ditu: pintura, musika, josten ikasteko ikastaroak, arropa konpontzeko ikastaroak, sendabelarrak, makilaje ikastaroa, yoga, pilates, tai-chi, areto-ko dantzak... Matrikula epea irailaren 22tik 26ra egongo da zabalik.

### INFORMAZIO GEHIAGO:

Kultura batzordea, Bastero: 943 303 540.

Zuena elkarte: 606 929 697.

Gazteei eskaintza berritzailea Allurraldeko kirol ikastaroetan

## Aukera berriak gazteei

**K**irola egiten ez duten horiengana iristea eta kirolaren mundura erakartzeko dira Allurralderen helburu nagusiak, horregatik, betiko ohiko jarduez gain, ekintza berritzaileak ere eskainiko dituzte. Gazteentzat, batetik, aerobik eta spinning gaztea eskainiko dute 12-16 urte bitartekoentzat. Bestetik, fitness ordu gaztea egongo da astelehen eta asteazkenetan 18:00etan, 14-16 urte bitartekoentzat. Fitness areto-ko makinak erabiltzen ikasi eta entrenamenduaren mundura gerturatzeko aukera izango dute.

### ATE IREKIERA IRAILAREN 20AN

Ikastetxeen laguntzarekin, gazteek kiroldegiko instalazioak eta bertako eskaintza ezagutzeko aukera izango dute.

Bestalde, igeriketako hobe-kuntza ikastaroen eta triatloietako partaidetzaren igoerak bultzatuta, igeriketa tekniko pertsonalizatua eskainiko dute. Begirale espezializatuekin banakako saio teknikoak egin-



Ainara Rodriguez zinegotzia eta Ixiar Olano kirol teknikaria, Allurralden.

go dituzte. Eta betiko jarduez gain, Zumba praktikatzeko aukera izango dute.

Irailaren 5a arte egongo da izena emateko epea irekita Allurraldeko bulegoetan.

## Lagunak taldekoen bazkaria irailaren 20an



Lagunak futbol taldeko kideen bilkura izango da laster.

Aspaldiko lagunak irailaren 20an bilduko dira Ontza elkartearen. Kide izan ziren guztiak gonbidatuta daude. Izen-ematea irailaren 18an

amaitzen da. Parte hartu nahi dutenentzat, hona izena emateko telefonoak: 690 260 340 (Xabier Agirre) edo 646 113 705 (Julian Lopez).

## Ongietorria Pello Alvarez herritarrari



Pello Alvarez senitartekoez eta lagunez inguratuta.

“Herria dugu arnas” euskal iheslari politikoen kolektiboa astelehenean iragarri zenez, Pello Alvarez *Pellito* andoaindarra sorterrira itzuli da. Hainbat urte eman ditu Andoaindik kanpo eta sorterrira itzultzean, lagunak eta senitartekoez Kale Nagusian ongi etorria egin zioten.



## Kirol ikasturtea hastear

Ikasturte berrirako eskaintza oparoa eskainiko du aurten ere Allurralde kirol patronatuak. Irailaren 5a bitarte izena ematea zabalik dago.

Helduentzat igeriketa, ae-

robik, zumba, spinning eta abar luzea. 12-16 urteko gazteentzat spinning gaztea eta zumba gaztea eta 14-16 urte artekoentzat fitness ordu gaztea.

## Euskara goruntz doa

Aurten errenta aitortpena euskaraz egiten duen kopurua igo da, nahiz eta pixkanaka izan. Buruntzaldeko udalerrietan ere joera goranzkoa

da. Bereziki nabarmena da igoera Urnietan, aurkeztutako proposamen guztien %13a. Andoainen ere kopurua oso beretsua izan da.

## Zumeatarrako kideak karlisten paperean



Uztailaren 20an Ormaiztegin parte hartu zuten.

Andoaingo Zumeatarra elkarteko hamar lagunek Ormaiztegin uztailaren 20an egin zen errekreazio historikoan parte hartu zuten, eta

Gipuzkoan sortu zen lehen batailo karlista, "Txapelxuriek" osatutakoa, antzestu zuten Ormaiztegi kaleetan zehar.

## Bazkuneko kideak abuztuaren 31ko ekitaldian



Abuztuaren 31ko ekitaldian parte hartu zuen Andoaingo taldea.

Abuztuaren 31n 201 urte bete ziren Donostian tropa britainiar-portugaldarrak sartu

eta hiriri su emanda suntsitu zutela. Aurtengo antzezpenean bertako kideak izan dira.

## Katto Amilibia gogoan Etenetan eta Goiburun



Omenaldi ekitaldia Etenetan egin eta gero, bazkaria egin zuten Goiburun.

Haren heriotzaren bigarren urteurrenean, Etenetan ekitaldia egin zuten eta ondoren bazkaria Goiburun. Katto Amilibia andoaindarrak Benasque inguruan hil zen 2012an, mendi istripuan. Haren heriotza saminez har-

tu zuten herrian, herrigintzan hainbat arlotan aski ezaguna zelako.

Bizi zenean herriko ekimen ugarian murgildu zen, San Juan jaietan txalaparta jotzen edota Axeri-dantzan kapitain gisa.

Sutearen eraginez Kaletxikiko etxeak prezintatu egin zituzten

## Sutea etxe okupatuetan

Uztailaren 25ean arratsaldeko 17:00ak aldera sutea piztu zen Kaletxikin, zorionez soilik kalte materialak sortuz. Bertara agertu ziren suhiltzaileak, Ertzaintza, DYA eta Gurutze Gorria. Baita Udaltzaingoa eta Udal ordezkarriak ere. Bertan izan ziren ere alkatea eta gizarte zerbitzuetako zinegotzia. Ana Carrere alkateak zera adierazi zuen sutea izan zen tokian bertan: "Susto handia hartu dugu. Etxe zaharra da eta kezka genuen ea norbait bertan egon zitekeen. Sutea bigarren solairuan izan da. Haurrak ere bizi dira baina zorionez kalte materialak bakarrik. Erretako etxeetan 8 pertsona bizi dira eta Aldundiak protokoloa martxan jarri du. Oso larria izan ziteke-



Aldundiak berehala egoera horietara bideratutako protokoloa aktibatu zuen.

en baina zorionez sutea piztean etxea hutsik zegoen".

Sutearen eraginez, Kaletxikiko 28 eta 30 zenbakia daramaten etxebizitzetarako sarbide-

ak itxi egin zituzten. Ondorioz, bertan okupa modura bizi ziren familia ezberdinek etxebizitza horiek utzi behar izan zituzten.

Bigarren faseari ekin diote abuztuan, ur emari eskasa baliatuta

## Inturia eraisten darraite

Inturiako presaren eraisketa-aren bigarren faseari ekin diote abuztuan zehar, hil honetan ur emaria eskasa izan ohi dela probestuz. Obra lau fasetan burutzekoa da, eta 2016rako amaiteza espero da. Bigarrena burutu dute, eta ekinaldi bakoitzeko hormari hiru bat metro kendu nahi zaizkio. Ondo bidean, aurtengoa abuztuko azken astean amaiteko da. Ura Euskal Ur Agentzia eta diputazioaren eta Andoaingo udala dira obraren bultzatzaileak. Ekimena, Euskal Pirinioetako Europako erakundeetatik sustatzen den Gura-trans izeneko egitasmoaren baitan kokatu behar da. Ibaian kudeaketa egokiago baten aldeko politikak bultzatzea du helburu aipatu egitasmoak.

Gogoratu behar da, Andoaingo udalaren eskutik, hausnarketa prozesu baten ondorioz heldu zela presa eraistearren erabakia 2013an. Aldeko eta kontrako argudioak eztabaidatu ziren orduan. Eraisketak sortu zuen kezkarik nagusia hasieratik, presan pilatutako lur materialak (tona mordo) eragin zezakeena izan zen. Ingurugiroko teknikoaren iritzien arabera, bidean topatzen dituen zulo eta putzuetan geratuko da lokatza. Hala ere, ur emariaren dinamika naturala dela eta, urteen poderioz, desagertzen joango da eta ibaia bere onera etorriko da ziurrenera.



Obra lau fasetan burutzekoa da, eta 2016. urtean amaiteza espero da.

Argi geratu zena izan zen presak jada ez duela bere hasierako funtzioa betetzen. Aitzitik, horma efektu artifiziala eragiten duela. Habitat naturalari egiten dio kalte; besteak beste, babes bereziko espezieen bizimoduari (izokinari, uripurtatsa edo bisoi europarrari, muturluzeari...). Gauzak horrela, Leitzarango bizitasun ekologikoaren aldeko apustua egitea erabaki zen.

Esan beharra dago trabaz beterik dagoela Leitzarango ibaiaren emari naturala, bidean eraikita dauden hainbat zentral hidroelektrikoaren presen eraginez batez ere, baina Inturiako horma hauxe izan da kalte sortzaile handiena azken urtetan.

Bestalde ez da ahaztu behar presak, urtetan, material orga-

nikoa pilatu duela bere goikaldean, urtegi moduko efektua sortuz. Leku berezia suertatu da ingurua paisajistikoki eta estetikoki, Plazaolako bidean bizikletaz zein oinez doazen pertsonen begietara ikusgarri egiten dena. Bada, eraldaketa sakona jasan du paisaje horrek jada. Presa eraiki aurreko bere egoera naturalera itzultzen ari da, beraz.

Uraren kalitatea da begi bistako bigarren eraldaketa azken asteetan. Ibaia zikina dator, lokatza aurretik baitarama. Lehen esan bezala, denbora kontua izango da ura bere onera etortzea.

Inturiako presa Leitzarango haranean kokatzen da, Andoaingo abiatuta Inturia baserri-rik haruntzago; 7. eta 8. kilometroaren artean, hain zuzen.



## KIROL ALBISTEAK

# LeitzAran MTB mendi bizikleta maratoia irailaren 21ean

**H**amabost egun barru Leitz MTB taldeak 42 kilometroko bizikleta irteera antolatu du, Etxeberrieta plazatik abiatuko dena. Ibilbide gorabeheratsua izango da, 1300 metroko desnibela pilatuko duena. Andoainen hasi eta bertan bukatuko da, Leitzaran haraneko txoko ezkutu ugari zeharkatu eta gero. Izena emateko epea zabalik dago, 300 parte hartzaile osatu arte.

Ibilbide ertaina ere prestatu dute, 25 kilometrokoa.

18 urtetik gorako bizikletazaleek Andoaingo mendialdean barrena ibilbide polita egiteko aukera dute. Ibilbide osoa xehetasun handiz Internet sarean ikusgai dago wikiloc.com gunean "Leitz Aran 2014" izenarekin.

Antolatzaileek lasterketa ondo ateratzea eta arazorik ez izatea bermatzeko udaltzainen, bolondresen, mugikortasuneko langileen eta Gurutze Gorriaren laguntza izango dute. Ibilbide osoan zehar bolondresak lanean izango dira pro-

**LEITZ Aran MTB-PROBA**

42KM  
1300M

IRAILAK 21 ANDOAIN

21 SEPTIEMBRE ANDOAIN

PERFILA

LAGUNTZAILEAK

berria

ANTOLATZAILEA: KROA KROA KROA LEITZ

NOIZ: 9:00etan  
NON: Etxeberrieta plazan  
DISTANTZIA: 42km

Aldez aurretik: 20€  
Egun berean: 25€  
www.herrickrossa.com

Froga bukatzeran:  
Pintxoak, freskagarriak  
Bizikleta garbitzeko gunea eta dutak

Lasterketa ederra izango da, Andoaingo eta Leitzarango parajeetan barrena.

baren arauak betetzen direla ziurtatzeko. Kaskoa erabiltzea, noski, ezinbestekoa izango da.

### Probaren xehetasunak:

Irailak 21, igandea.  
09:00 Etxeberrieta plaza.  
Proba nagusia: 42 km.  
Proba ertaina: 25 km.  
Hamaiketako, dutxa, bizikleta garbitzeko gunea eta apartakalekuak ziurtatuta daude.

### Informazioa:

leitz@leitz-mtb.com  
www.leitz-mtb.com  
608 640 308

### Izen ematea, 20 euro:

www.herrickrossa.com  
Egun berean: 25 euro.

### Ibilbidea wikiloc gunean:

Mapa eta satellite bidezko irudien gainean ibilbidea xehetasun osoz ikusgai dago:



## Mikel Alonso bikain

Jubenil mailako txirrindulariak denboraldi luzea daroma, eta guztiz oparoa. Mundu txapelketaren atariko deitu dioten proban estatutu mailako onentsuekin iritsi zen helmugara. Abuztuaren 30eko lasterketan seigarren postuan sailkatu zen. Asteburu honetan Espainiako txapelketan izango da Murtzian, Euskal selekzioarekin.

## Preferente mailako futbola

Irailaren 21ean abiatuko da denboraldi berria. Partidak: Mundarro-Euskalduna. Trintxerpe-Urnieta.

## Ganbara saski taldea

Ganbara saski taldeak ekin dio denboraldi berria prestatzeari. Kiroldegian ipini dute hitzordua, 18:30ean hasita. Prestaketa saioak astelehen, asteazken eta ostiraletan izango dira. Infantil eta kadete mailan mutiletan arituko diren jokalariek behar dituzte, eta emakumezkoen taldea ateratzeko prest daude horretarako adina partaide biltzen badira.

## Leizaran taldea martxan

Leizaran esubaloi taldeak abuztuaren 25ean ekin zion denboraldi berria prestatzeari. Kadete, jubenil eta senior mailakoak orduan hasi ziren. Aste honetan infantilek ekin diete entrenamenduei.

## Goiburu Golf taldea Euskadikoan txapeldun




Goiburu golf taldeko gaztetxoak abuztuan Euskadiko eta estatutu mailako taldekako txapelketetan aritu dira, emaitza bikainak lortuz gainera. Arabako Larrabea golf klubean jokatu zen Euskadikoa eta bertan Andoaingo taldea txapelduna izan zen. Iñaki Garmendia an-

doaindarra taldeko kide izan da, Alex Zamarreño, Oihana Etxezarreta eta Amaia Ubideekin batera. Koldo Ubide izan da taldeko kapitaina.

Abuztuaren 26an eta 27an Malagako Guadalhorce herrian parte hartu zuten, estatu mailako txapelketan.

## Nahikari Garcia urnietarra Europako txapeldun-orde

Nahikari Garcaren urtea izaten ari da, zalantzarik gabeko. Egun hauetan futbolaria Real Sociedad taldearekin denboraldi berria prestatzen ari da eta bost aste atzera Europako 19 urte azpiko finala jokatu zuen Holandaren aurka. 1-0 galdu zuten eta, beraz, txapeldun-orde izan zen. Urte hasieran, 17 urte azpiko munduko txapelketan ere finala jokatu zuen.




## Kontsejupekoa Urnietan

Jaiak gerturatzearekin batera UKEK Kontsejupekoaren edizio berria antolatu du benjamin, alebin eta infantil mailatan. Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago, datorren irailaren 9ra arte. Lekaion izena eman be-

harra dago, edota bestela 943 00 80 33 telefono zenbakira deituz. Txapelketa irailaren 11n hasiko da.

Txapelketaren sustatzaileek herriko gazteak animatu nahi dituzte aurtengo edizioan parte hartzera.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



**Argitaratzailea:**



**Aiurri eskuragarri:**

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.com. **Webgunea:** www.aiurri.com

**Zuzendaria:**

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.com  
**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

**Diseinua:**

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.com  
**Publizitatea:** Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.com

**Zorion agurrak, merkatu txikia:**

diseinua@aiurri.com www.aiurri.com  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04  
**ISSN:** 1698-4870  
**Tirada:** 4.000 ale.

**Kudeatzailea, banaketa arduraduna:**

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.com. Tel.: 943 300 732

**Banatzaleak:**

Mikel Arregi (Andoain), Gaizka Bernardo (Urnietak). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

# Agenda

IRAILAREN 4TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: [andoain@aiurri.com](mailto:andoain@aiurri.com)

## Jaiak

- Sorabillako jaiak**
- Asteburu honetan hasita**  
Egitaraua luze eta zabal gehigarri berezian:
- Irailak 5, ostirala**  
18:00 Txupinazoa.  
18:30 Palako finalak.  
20:00 Kontzertua auzoko elizan.  
21:00 Zikiro jatea. Ondoren, Los Rubi.  
02:00 Txokolate beroa.  
03:00 Jai amaiera.
- Irailak 6, larunbata**  
10:00 Belkoango igoera.  
11:00 Haur lasterketa eta jokoak.  
16:30 Haur jolasak.  
18:00 Pailazoak.  
19:30 La Jodedera.  
20:00 Sardina jatea.  
20:30 Ate Irekiak Erretore Etxean.  
21:00 La Jodedera.  
03:00 Jai amaiera.
- Irailak 7, igandea**  
10:30 Diana: Eskopeteroen konpainia eta Aupa Sorabilla txaranga.  
12:15 Omenaldi herrikoia Jexux Mari Otamendi.  
12:30 Hamaiketakoa.  
17:30 Bertsoak: Aitor Mendiluze, Ion Eskudero eta Millan Telleria. Gai jartzaile: Ion Beloki.  
18:30 Sagardo dastaketa.
- Irailak 8, astelehena**  
11:30 Meza nagusia abesbatzarekin.  
12:15 Hamaiketakoa auzotarrentzat.

## Ikastaroak

- Andoain**
- Euskarazko hastapen ikastaroak** guraso, aiton-amon edota zainatzaileentzat.  
Baldintzak: Andoainen bizi eta 2003. urtean edo geroago jaiotako ume baten guraso, aiton-amon edota zainatzailea izatea.  
Ikastaroak urritik ekainera, Andoaingo ikastetxeetan bertan, astelehen eta asteazkenetan. 14:35-16:20. Informazio gehiago Udaleko Euskara Zerbitzuan eta AEK euskaltegian.
- Jabetze eskola: Feminismoa.** Mugimenduak egiten dituen ekarpenekin eta gaur egun gizartean eztabaida sortzen ari diren gaiekin harremanetan jarri nahi duten adin guztietako emakumei zuzenduta dago.  
Urrian, asteartero. 18:30-20:30. Urigain. Matrikula: 10 euro. Izen-ematea: Ataria. Epea: Irailak 30.
- Kirol ikastaroak** Allurralden.  
Eskaintza zabalak gazte eta helduentzat. Izen-ematea amaitzear da.  
Irailak 5, asteartea.

## Aurkezpenak

- Andoain**
- Erregional mailako taldearen aurkezpena, Euskalduna txapelketan. Aurkaria Urnietan izango da. Irailak 13, larunbata.

### Urnietak

- Urnietak Kirol Elkarte taldeko futbol sailaren aurkezpena. Egun berean jubenilen Ricard memoriala. Irailak 13, larunbata.

## Odol-emaileak

- Andoain**
- Anbulategia. 18:30-20:30. Irailak 9, asteartea.

## Sanmielak

- Urnietak**
- Irailan hasita, hitzordu ugari Urnietako jaietan.  
**Koadriren arteko futbol txapelketa.** Xehetasunak 4. orrialdean.  
**Kale salmenta postuak.** Argibideak 4. orrialdean.  
**Pintura lehiaketa** irailaren 21ean. Oinarriak 4. orrialdean eta aiurri.com gunean.  
**Iñistor jaia** irailaren 29an. Omenaldia bazkalostean Edu Muruamendiara. Bazkarirako txartelak salgai, ohiko tokietan.  
**Jubilatuaren bazkaria** irailaren 29an Oianumen. Agertu nahi duen urnietarrak, elkarteko kuota ordainduta duela aurkezteaz gain, 12 euroko ordainketa egin behar du.

## Deialdia

- Andoain**
- Lagunak futbol taldeko kideen bilkura.** Iraganen futbol txapelketa ugariz gain ospe handia lortu zuen Lagunak futbol taldeko kideak bazkari batean bilduko dira. Parte hartu nahi dutenentzat, hona izena emateko telefonoak: 690 260 340 (Xabier Agirre) edo 646 113 705 (Julian Lopez). Izen-ematea, azken eguna: Irailak 18, osteguna. Bazkaria Ontzan: Irailak 20, larunbata.

## Irteera

- Urnietak**
- Denda Berri adinekoen elkarrekin antolatuta, **Arantzazura irteera** eta bazkaria Olaberriko Arrieta jatetxean.  
Izen-ematea, azken eguna: Irailak 5, ostirala.  
Irteera: 09:00 Denda Berri egoitza. Irailak 9, asteartea.

## Bilkura

- Andoain**
- Gure Esku dago** taldearen deialdia: "Irailaren 11n Diada. Erabakitzeko eskubidea bai Katalunian, baita Euskal Herrian ere. Elkarrekin V bat egitera animatzen zaituztegu".  
20:00. Zumea plaza. Irailak 11, osteguna.

## ZORION AGURRAK

### ZORIONAK



Zorionak osaba **Carlos!** Ondo-ondo pasa dezazula! Muxu handiak, Cristina, Amaia, Jaime eta Sonia.  
**URNIETA**

### ZORIONAK



**Danele** abuztuaren 17an 3 urte bete zituen. Oporretan ondo ibili al zara? Oier, aita, ama.  
**ANDOAIN**

### ZORIONAK



**Ainhoa** 39 urte bete zituen uztailearen 27an. Ondo pasa zenuelakoan muxuak, Sara, Aner eta Joxe.  
**ANDOAIN**

### ZORIONAK




Iritsi zen hain esperorano zenuen eguna. Uztailearen 16an 7 urte zoragarri bete zituen **Maialen**. Segi orain bezain alai eta panpoxa. Muxu handi bat. Etxekoak  
**ANDOAIN**

### ZORIONAK



Uztailak 26an **Aratzek** 5 urte bete zituen. Hartu muxu potolo bat. Aita, ama, Kimetz, Arane eta amona ixabelen partez. Asko maite zaitugu.  
**URNIETA**

### ZORIONAK




Zorionak **Enara!** Hori neska polita jartzen ari zarena! Dagoeneko 3 urte abuztuaren 15ean beteta. Muxu potoloak Oier, amaxo, aita eta familiarikoen partetik.  
**ANDOAIN**

### ZORIONAK HIRUKOTE



Gure etxeko txirripistinak, **Anek** 3 urte bete zituen abuztuaren 26an eta bere osaba **Arkaitzek** beste bakan batzuk gehiago abuztuaren 24an. Irailaren 9an berriz, gure etxeko beste marisorginak, **Nahiak** egingo ditu 5 urte! Beraz zorionak hiruroi!!! Muxu potolo bana etxekoaren partez. Muuuuuuuuu!  
**ANDOAIN**

### ZORIONAK



Abuztuaren 14an, **Haizek** 11 urte bete zituen. Zorionak etxeko partetiketa horrela segi!!!  
**ANDOAIN**

### ZORIONAK



**Ioritzek** irailaren 8an 9 urte beteko ditu. Zorionak bihotza, super ondo ospatu. Ama, aita eta Odei.  
**ANDOAIN**

### ZORIONAK



**Odeiek** abuztuaren 28an 4 urte bete zituen. Zu zara gure printzea. Muxuak ama, aita eta Ioritz.  
**ANDOAIN**

**MERKATU TXIKIA:** Neska euskalduna behar da 2 haur zaintzeko, Andoainen: 650 341 108.



ZORION AGURRAK [diseinua@aiurri.com](mailto:diseinua@aiurri.com)